

2006ko martxoaren 2a • XXVI. urtea



Osasuna zaintzeko kooperatiba sortuz

03

Bortziriak osasuntsu baten aldeko kooperatiba suspertu nahizik dabil talde bat. Lehendabiziko bilera martxoaren 3an egingen dute Etxalarko Kultur Etxean.



Iruritik irabazi du areto-futbol kopa

28

Baztan-Bidasoako areto-futbol kopa jokatu da aurten lehen aldiz. Final ikusgarriko luzapenean Iruritik 4-2 irabazi zion Doneztebeko Titi Ostatuari.



EMAUS-EKO TRAPERROEN EGOITZA BERRIAN

04 Hondakinen lehen banaketa Donezteben egiten da

Lasao

egurrezko altzaria



EUSKAL HERRIAN ESTIMATZEN DEN ALTZARIA

www.lasao.com

DATUAK...

• Joxelu Berasategi beratarra eta Jone Arrospide etxalartarra, Bortziriak osasuntsu baten aldeko kooperatiba sortu nahi duen talde suspertzailako kideak dira.

• Lehenbiziko bilera ertzirial honetan, martxoaren 3an, eginen dute Etxalarko Kultur Etxean, 18:30etan.

• Elikadurari eta bere osotasunean, osasunari buruzko kezak dituzten pertsona guztiak gonbidatu nahi dituzte bilera honetara.



J. BERASATEGI-J. ARROSPIDE *Bortziriak osasuntsu baten alde*

Argazkia: AITOR AROTZENA

«Bertakoa eta garaikoa jateko ohiturara bueltatu nahi dugu berriro»

Aitor AROTZENA

Zein da sortu nahi duzuen kooperatiba honen helburua?

Gaur egun supermerkatuetan eta dena aunitzetan aurkitzen ditugun produktuak nahiko manufakturatua eta kutsatuak daude, eta gainera garesti ateratzen dira. Bertze elikagai naturalago batzuk ez erosteko jendeak jartzen duen aitzakia garestiagoak dira. Orduan zera nahi dugu: ahalik eta pausu guttien eman produktua sortzen duenaren eta eroslearen artean. Horretarako zuzenean produktorengana joan, ahal bada eskutik eskura hartu eta etxean produktu horiek edukitzeko aukera izatea nahi dugu, modu egokienean. Askoz gutxiago kutsatzen dugu, produktuek ez dute hainbeste buelta ematen kamioletan eta gainera prezioa ez da garestitzen, bitartekari ez dagoelako, dendaren zergarik ez duelako... Ekoizlea gero eta hurbilago egon, orduan eta konfidantza gehiago duzu zer ari zaren jaten, badakizu produktua zer den. Gaur egun, firmaren gibeletik ibiltzera ohituratuak gaude, baina ez duzu ezagutzen nor den ekoizlea...

«Jateko ez dugu gauza asko eta esotikorik behar: Gauza ximple eta oinarriko berietan garrantzia jarri behar dugu eta kalitateko produktuak eskaini nahi ditugu kooperatiban»

Beraz, ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean hurbiltasuna lantzen nahi dugu...

Lehenbiziko bilerara hurbildu zen jendeak helburu ezberdinak zituen. Batzuk kontsumitzaile interesa agertu zuten, bertze batzuk beraien baraztean metodo ekologikoekin ari dira edo lanean hasteko intentzioa dute, bertze batzuk osasun arloko informazioa lortu nahi zuten...

Elikaduran nolabait hehitzeko asmoa ere baduzue...

Betiko janarian, betiko elikagaletan, bertakoa eta garaikoa jateko tradizioa izan da hemen eta horretara zuzendu nahi dugu berriro. Neguan babarrunak jatea nahiago dugu eta udan entsalada bat, hori logikoa da. Denda batera joan eta edozein garaitan

baduzu edozer gauza, Murtziatik, Txinatik, Perutik edo nonahik ekarria. Ez dakigu nola sortu diren, zenbat ongari duten, pestizidak, kontserbanteak, gure eskuetara ailegatzeko zenbat manipulazio izan duen, langileak zein egoeratan aritu diren... Lehenengo jakin behar dugu zer ari garen jaten, horrekin osatzen baita gure gorputza eta hori ahaztu dugu.

Ongi eta osasuntsu jatearen ohitura hori galtzen ari da gurean ere?

Gaur egungo bizitzak abiadura handia du. Denbora gutxi eskaintzen diogu sukaldeari eta janarian gutxi inbertitzen da. Nahiago dugu urrutira joan oporretara, kotxe ederrak izan, arropa dotorea... Duela gutxi arte janarian inbertitzen zen diru gehiena. Elikadura ez ezik, bizimodu osasuntsua bere osotasunean ere azpimarratu nahi dugu...

Zein etxetan bizi garen, pintura, plastoak, esmalteak, elektrizitatea... mila gauza dira etxe batean kalte egiten ahal dutenak; kimikarik gabeko baratze gintza erakutsi nahi dugu; osasun arloan, erditze naturala etxean izan nahi duenarentzat laguntza...



FOTOGRAFIA: XAN HARRIAGUE

Federico Laurnaga eta Isidro Herguedas, Traperos de Emaus erakundeak Donezteben duen biltegian.

Baztan-Bidasoaldean orain arte Emauseko Traperosekoek traste handiak biltzeko Mallerrekan eta Bortzirietan bakoitzak bere mankomunitatera eta baztandarren kasuan Udalera deitu behar baldin bazen ere, otsailaren 13tik aitzimera Emauseko Donezteben ireki duten egoltzara deitu behar da, 948 451979 telefonora. Bidonabar, orain arte birziklapeneko banatzea iruñaldean egiten baldin bazen ere, hamendik aitzimera Donezteben bertan egiten da. Zerbitzu honen berri jakiteko eta Emauseko Traperoen lana hurbiletik ezagutzeko Doneztebeko biltegi berrian bildu gara Federico Laurnaga eta Isidro Herguedas, Emauseko langileekin. Ramoni Olazariregi, Bortzirietako Mankomunitateko kudeatzaileak azken urteetan hondakin ezberdinen bilketak gure inguruan izan duen bilakaera baikorraren berri ere eman digu.

OTSAILAREN 13TIK EMAUSEKO TRAPEROEK ESKAINTZEN DUTE ZERBITZUA

Traste handien lehen bereizketa Donezteben egiten hasi dira

Xan HARRIAGUE

Hondakin bilketa zerbitzua eskaintzeko lehiaketa irabazi eta hiru mankomunitarekin lan egiten dute Emauseko Traperoek, Baztan, Bortzirietan eta Mallerrekako Mankomunitateekin. Isidro Herguedasek aipatu digunez, «Emausek eskaintzen dituen lanak kartoiak biltzea, enbase bilketa, tamaina haundiko trasteen bilketa, pilak, plastiko beltzak, edukiontzien garbiketa dira... gauza pila bat

egiten dira». Hamalau langile dituzte eskualdean, orain langile bat gehiago hartu behar izan baitute. «Zerbitzua hemen zentralizatu dugu, -dio Isidro- Mankomunitatera deitu beharrean Emauseko egoltzara deitu behar da eta neska bat kontratatu dugu abisu guziak biltzeko eta bulegoa eramateko. Hasieran zerbitzu murrizta zen eta langile gutti ziren, baina urtebetean bikoiztu egin da langile kopurua. Bi gauza bereizten ditugu lan-

gileak hartzerakoan. Kamioiak ditugunez, hori gidatzeko gauza den jendea bilatzen dugu eta gero, zailtasunak dituen jendea hartzen dugu, horiek laguntzeko eta aukera bat emateko».

Ondoko orriko koadroetan ageri denez, urtetik urtera zabor gehiago bildu eta birziklatzen da. Horrek, bilketa zerbitzua handitzea ere ekarri duela jakinarazi digu Herguedasek: «Trasteen bilketa zerbitzua bikoiztu

egin behar izan dugu. Hasi-
sieran hilabeteen behin bil-
tzearekin nahiko izanen ze-
la pentsatu genuen, gero bil-
keta zerbitzua astean behin
ematen hasi ginen eta ba-
tuetan astean bitan ere
eman behar izaten dugu. Ber-
tze materialetan ere (pape-
rak, kartoiak,) gora joan da
bilketa».

LEHENBIZIKO BANAKETA

Federico Lurnagak ai-
patu digunez, Donezteben
tamaina handiko trasteen le-
henbiziko banaketa egiten
dute eta olio eta etxez etxe-
ko bilketa ere horrat erama-
ten dute. «Lehenbiziko be-
reizketan edukiontzia ezber-
dinetan sartzen dugu egurra,
burnia, etxezko tresnak, arro-
pa zaharra, mobil zaharrak,
kristala, ongi dauden gauzak
eta berriz erabili daitezkeenak
eta deus balio ez duena
eta zaborrera botatzen de-
na. Aitzinerago, etxezko tres-
nen bereizketa askoz hobea
egiten dugu: telebistak, oli-
matika aparatuak, tresna tli-
kiak, gauza pila bat».

Orain arte traste hauek
txatarrara joaten ziren, bai-
na orain dena zenbatua eta
pisatua joanen da. «Norma-
lean botatzeko moduan etor-
tzen dira gauzak, baina orain-
dik funtzionatzen dutenak
birziklatzen saiatzen gara.
Ongi daudenak Sarasara bi-
dalit eta hango rastroan sal-
tzen da». Izan ere, Emausen
helburua elkartasunean eta
ingurumenarekin errespetuan
bizitzea dela aipatu digu Fe-
dericok: «Gure helburu na-
gusia soziala da, ez da lan
bat egitea, elkartasuneko bi-
zimodua eramatea baizik. Gu-
re taldean lanpostuak atera-
tzen saiatu gara, lana dela-
koz pertsona gizartearen inte-
gratzeko modu nagusia. Lan
duina izatea inportantea da
pobreziaren katea apurtze-
ko eta norberak bere bizia
duina egiteko. Zailtasuna du-
tenentzat lanpostuak atera
nahi izan ditugu, eta lana per-
sonaren neurria egin dugu,
ez alderantziz. Elkartasuna
bizitzearekin batera, inguru-
menari errespetuarekin bizi-
tzea ere agertu nahi dugu eta
aide horretatik zentzua du bir-
ziklatzearen lanak».

BILDUTAKO HONDAKINEN KOPURUEN BILAKAERA URTEZ URTE



PAPERA ETA KARTOIA

	2002	2003	2004	2005
Baztan	177.094	205.330	207.358	246.630
Bortzirriak	333.225	352.127	410.735	480.090
Malerreka	100.836	124.764	141.913	146.890



ENBASEAK

	2002	2003	2004	2005
Baztan	58.442	63.664	67.049	64.461
Bortzirriak	55.036	60.253	65.095	84.803
Malerreka	21.410	26.609	31.736	40.196



BEIRA

	2002	2003	2004	2005
Baztan	253.240	232.905	?	?
Bortzirriak	224.751	241.374	265.420	?
Malerreka	141.262	162.402	158.463	?

SUKALDEKO OLIOA - ETXEKO HONDAKIN BEREZIAK (2005)



* 2005ean, etxezko olioen datuak,
Etxeko hondakin bereziak
sailaren barnean sartu dira.

	2002	2003	2004	2005*
Baztan	1.170	2.363	-	3.461
Bortzirriak	1.145	1.825	2.475	3.270
Malerreka	-	-	-	1.710

NEURRI HANDIKO TRASTEAK



	2002	2003	2004	2005
Baztan	58.910	73.180	85.145	115.630
Bortzirriak	122.905	150.480	122.885	182.550
Malerreka	29.675	48.770	64.560	69.390



SILOETAKO PLASTIKOAK

	2002	2003	2004	2005
Baztan	0	4.738	11.470	18.332
Bortzirriak	0	278	1.495	1.525
Malerreka	0	3.470	7.315	13.283

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 50
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apeztegui.
Kudeatzailea: Joxemai Ingoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Berriemakileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Salazar, Kontzi Klaber, Pello Zestau, Arkaitz Mendegia, Franck Delosor, Margarit Etxenika, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Milteltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gorri, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarte, Bortziriako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sarriak:

Hago Euskal Herria	30 €
España	30 €
Sara (edantegia-okidegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	100 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka eta Leizta	25 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurrialtzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Kotto zenari keinu higuigarria

Hiru hilabete Soriako kartzelatik kotto maitea hilotz itzularazi zitugela. Hiru hilabete, sakabana-ketak eta mendeku politikak eragindako hilketen zerrendan gure herikidearen izena erantsi zuenetik. Bat gehiago beraiantzat, Gurre Kotto maitea guretzat. Bakarra eta errepika ezina. Hiru hilabete bertzerik ez, herritarren elkartasun oldea bereziki Beran, baina baita Euskal Herriko hainbat txokoetan, kaleak hartu zituenekoa. Hiru hilabete bertzerik ez Berako Udalak Kottoren heriotza salatu, argitze-ko eskatu eta gertatutakoaren gainean ardura politikoak zeudela mozio bidez adierazi zuenetik...

Hiru hilabete Berako Udalak eta agintean dauden taldeek (Eusko Alkartasuna eta Aralar) familiari gorpuaren herriratzea, hileta eta barren gastuak ordaintzea agindu zietenik. Geroztik bi aldiz joan gaitzaizkio, behin Kottoren lagun eta senitarteko izenean eta bertze behin Berainezen zerrendaburu eta legez kanpo utzitako alkatearen bidez, emandako hitza bete zezaten eskatzeko. Beti geroke utzi dute aferra, zorra kitatu baino, denbora irabazi nahiko balute bezala... "Bai familiarekin bildu nahi dugu..." Eta halakoekin joan dira hirur hilabete. Urtarrilaren 23an Elena Santestebanek sinatutako ohar labur baina guztiz argigarri bat: "Udalak ez du diru partidari 3.394 euro ordaintzeko".

Hiru hilabete aski izan dira Herriko Etxea eta plaza jendez gainezka zegeonean emandako hitza jateko. Zuetako norbait hausartu al da Kotto Herriko etxean zortzi urtez zinegotzi ibili zenean musu truk aritutako orduak kontatzen? Berako Kultur Batzordearen sorrera (Bai , bai, hain eredugarri jotzen duten Berako Kultur Batzordeaz ari gara), Gure Txokoa, Espidobaita Elkarte, Lurraren Eguna, Zirimolan kultur hilabetea, etabar. Amaia Gabeko zerrenda osa dezakegu, Kottok sortu, bulkatu edo lagundutako egitasmoekin beti herriaren alde. Lan horiek guztiak soldatapeko hautetsiek beren buruari ezarritako kopuruen ara-

bera ordaindu izan balira hiletaren gastuak eta zerbait gehiago ordaintzeko adina ailegatuko litzake agian ere... Baina ez. Berako herria eta Euskal Herriaren alde aritu izana bizitzarekin ordaintzen dutenek, eskuzabaltasunaren eredu direnek, Udalaren zuhurkaria dute ordain. Eta susmoa dut Kottori min gehien emanen lioken tokian ukitu dutela, etxekoie, seritartekoei itsusi eginez. Edo ez al da itsusi egitea urre gorria agindu eta hirur hilabete berandoago paper hotz bat igorri ezezko borobilarekin. Inoxoa litzateke telefono dei bat, edo solasaldi xumea eskatzea, ziur bainaiz oharra sinatu duenak ez duela kopetarik Kottoren amari (barkak aipamena) begietara begiratuz erabakia arrazoitzeko. Edo agian bai... jada deusek ez baigaitu harritzen. Hiru hilabete ibili zarete denbora kudeatzen, familiari hitzez agindutako diru laguntza azkenean ukatzeko: la ildakoaren gorpua bezain abudo hozten dira abertzale zenbaiten bihotzak. Eta benetan pentsatu duzue herriak hirur hilabetetan aiantziko zuela? Hitz bakarra Berako Udal sasi-demokratikoaren jarrera sortu digun sentimentua adierazteko: higuina. Bukatzeko Kotto hirtzak bi solas: hagoen tokian hagoela, hago lasai, hire hurbilekoak laguntzea ohorea izanen baituk guretzat. Hi zinegotzi izan hintuen Udalatxeari buruz zer nahi duk erratea: gehientsuenak eroso zeudek Ezker abertzalea baztertuta, agerikoa duk hori. Zenbaitetan kontrakoa erran arren, erraz galtzen baidituk erratetik egiterako bidean.

Berako Ezker Abertzalea.

Berako herriari

Berako Udalak Kottoren heriotzak eragindako gastuak ordainduko zituela eta orain hitza ez duela bete erranez salaketa egin zaigu prentsaren bidez. Udala osatzen dugun taldeok salaketa honen gibelean dagoen gezurra eta manipulazioa salatu nahi ditugu, eta argi utzi Udalak ez zuela inongo momentutan gastu horiek ordaintzeko konpromisurik hartu.

Kottoren heriotzak samin izu-

garia ekarri zuen Euskal Herrian, eta bereziki Beran. Samin hori askatasunaren eta giza eskubideen defentsa egiten dugun guztiok geure egin genuen, eta egiten dugu. Samin hori agertu nahi izan genuen ahobatez ezohiko osoko bilkura deitu genuenean Berako Udalean. Ahobatez onartu zen mozioa, Herrialde, EA, Aralar eta Berainezen babesarekin, lau taldeek aitzinetik adostua eta negoziatua izan baitzen. Eta ez mozio horretan, eta ez horren prestakuntzan, inongo momentutan ez zen alderdi ekonomikoa eztabaidatu, eta ondorioz, Udalak ez zuen inolako konpromisurik hartu maila horretan. Mozioak berak biltzen duen bezala, beharrezkoak ziren gestio guztiak egiteko eskaini zuen bere burua Udalak, eta familiak hala eskatuz gero hil kapera Herriko Etxean paratzea ahalbidertuko zuela.

Egun horietan tentsioa ahalik eta txikiena izan zedin, egoeraren gogorren ahalik eta "normaltasun" handiena egon zedin, eta guztion samina karriketan era bakeitsu eta librean adierazteko bide guztiak bermatzeko ahalegin guztiak bermatzen ahalegindu zen Udala. Erraztasun guzti-guztiak paratu ziren, errespetutik Kottori azken agurra bakoitzak nahi moduan eman ahal izateko.

Baina horra gure harridura gutun batean gure hitza jan izanaz leporatzen zaigula. Sekula hartu ez genuen hitza. Sekula eztabaidatu ez genuen kontua. Fakturak aurkeztuz eskaria egin zitzaion Udalari gastu horiei aurre egiteko, eta Udalak egoera hori aztertuko zuela erantzun zitzaion familiari, zein Berainezko kideei. Aztertu bai, baina inoliz ez ordainduko zitzaie erran. Udalaren erabakia-ekin ados ez egotea gauza bat da, eta bertze bat hagitz desberdina gezurra erratea eta Udala gezurtizat hartzea. Bertze behin, oinarri-oinarritzko begirunea eta errespetua urratu da, eta bizikidetzat hausteko edozein aitzakia erabiltzeko prest agertu dira salaketa egin dutenak. Herri honek, Kottok, zein bere familiak gehiago merezi dutela uste dugu.

Berako Udala.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Konponbide demokratikoa orain!

Urdazubin zartatu den lehergailuak Euskal Herria eta bere eskubideak zapaltzen dituzten bi Estatuaren arteko gatazka politikoaren ondorio gordinen aurrean jarri gaitu berriro ere Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Malerrekan eta Bortzirietan. Euskal Herria eta Estatuaren arteko gatazka politiko honen kolpeak gogorrak eta askotarikoak jasaten ari gara azkenaldian gurean. Kottoren eraiketa, Euskal preso politiko guztien eskubideen urraketa, torturaren erabilpena, Batasunaren ilegalizazioa eta apartheid politikaren ondorioak, herri gisa eta euskal herritar gisa ditugun eskubideen ukazioa, ekintza armatuak eragin dituzten kalteak...

Egunero bizi dugun errealtatearen gordintza gatazka politiko hori konponbidea emanen dion prozesu demokratiko baten premi larria erakusten digu. Momentu honetan beharrezkoak diren bai-

dintza guztiak ematen dira konponbide demokratikorako prozesu hau abian jartzeko. Bi Estatuaren aldetik eta baita ere Euskal Herriko eragile sozial, sindikal eta politiko guztien aldetik borondate adierazpen hutsaletatik konpromezu linoak hartzerainoko bidea egin behar da.

Hauxe da 2004ko azaroaren 14an Anoetan Batasunak hartu zuen konpromisoa eta egunegun gauzatzen ari den konpromisoa. Ez dira aitzaki merkeetarako garaiak, ez dira ardurak bizkarraren gainetik kentzeko garaiak, ez dira alderdi bakoitzaren interesak lehenesteko garaiak. Bakoitzak bere konpromisoari heltzeko garaiak dira. Hauxe da Batasunaren konpromisoa eta gainontzeko alderdi politiko guztiei luzatzen diegun deia. Herritarrak ere asko daukagu errateko eta egiteko konponbide demokratikoaren alde. Orain Herria, Orain Bakea, irabazi ditzagun!! Mugi gaituzen!!

Baztan, Bortziririak eta Malerrekan Batasuna.

• 11 GALDERA LABUR •

Zenbat aldiz aguantatu behar izan duzu «San-txin», «Sin-tzan» erregelkeria?

Ez pentsa, aunitzetan ez.

Lagunatean isil xamar egoten den mutil lotsatia edo jende aunitzen aitzinean hazitzen den aizkolaria. Zein da «Santxin»?

Bietatik pixko bat, baina lehenbizikotik gehiago bigarrenetik baino.

Gazte gehienek pilota edo futbola aukeratzen dute. Kontra egiteagatik aizkora?

Ez, gogoa nuelako eta gustatzen zitzaidalako aukera nuen aizkora.

Inauteriak edo bestak?

Ez nuke aukeratzen jakinen, biek ere aski onak dira.

Bete zaizun amets bat? Eta betetzea nahiko zenukeena?

Bete zaidana Nafarroako 3. mailako txapela irabaztea aizkora. Nahiko nukeena, 2. mailakoa irabaztea. Baina hagitz zaila ikusten dut.

Miresten duzun norbait?

Nire osaba, Bitlor Elizagoien.

«Sasoien egon behar da kirolari ona izateko?»

Sasoian egotea komeni da, «Sasoien lan egitea berriz, ez da beharrezkoa».

Bestetan erraldioiak mugitzen, amabirjin egunean dantzan, herri-kirol desafioan arpanean... besta egiteko lan egin behar da?

Bai, aunitz. Baina jendeak ez du ikus-

ten, gibeletik egiten den lana da. Igande goizak lo pasatu beharrean, Setan ernatu eta aizkorara. Edozeinek erranen luke «hau burutik joana ziok»...

bai, beharbada bai, baina aspaldiko utzia dut hori. Orain larunbat gozetan entrenatzen dut. Hori ez da hain arraroa, ez?

Aizkolaria, dantzari, bertsolaria, trikitilari... afizio horiekin, duikabe lagunekin ez zara erdaraz arituko... Ez, egundaino, euskaldun batekin inoiz ez nauzu erdaraz solasean adituko.

Nafarroako 3. mailako txapelidun. Noizko txapelketa nagusian?

Nagusian inoiz ere ez. Bigarrenean irabaztea amets bat litzateke eta horretarako eginen ditut ahaleginak!



Xabier ARIZTEGI «SANTXIN»
Etxalarako aizkolaria


MAPFRE
BERAKO BULEGORAKO BEHAR DA

BEZERO KUDEATZAILEA

BEZEROEN ARRETA ZERBITZUAZ ARDURATUKO DA OROKORREAN, BAITA BULEGORA HURBILTZEN DIREN BEZEROEN PRODUKTUEN ESKAINTZA ETA SALMENTAZ ERE.

INTERESATUEK CURRICULUM VITAEA BERAKO MAPFRE BULEGORA ERAMAN BEHARKO DUTE

Bidasoa, 16

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 783 - Alzate, 17 - BERA

© 948 631462
Alzate 1 • BERA



PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Alzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Jose I. Gonzalez Enguita
Pintura lanak proiektuan
Tel. 948 630 444
948 630 353
Bidasoa 40 - 1.º pisu
31760 BERA

ARRANTZA

Izokin eta amoarrain denboraldia martxoaren 19an irekiko da

Berrogeita hamargarren izokina arrantzatzean itxiko da sasoi

ttipi-ttapa

Urtero bezala, martxo hirugarren igandean, martxoaren 19an aurten, irekiko da amoarrain eta izokin arrantzarako sasoi.

Izokin arrantzarako denboraldia hirugarren igandean ireki eta 50. izokina arrantzatzen denean itxiko da. Hau da, gehieneko kopurua 25 izokinetan murriztu da, iaz 75 arrantzatzen ahal baitziren. Ordutik uztailaren 31 arte arrantzatze aukera izanen da, baina heriotzarik gabeko modalitatean. Negu bat baino gehiago duten izokinak babesteko helburuarekin, zortzigarren izokina hartzen denean behin behineko arrantza debekatuko da ekainaren 15a arte, eta hortik aitzinera berriz ere izokina arrantzatze modua izanen da. Uztailaren hirugarren iganderako ez bada gehieneko kopurura aligatzen, orduan itxiko da izokinari heriotza eraginez arrantzatze sasoia eta hilabete bukaera arte hil gabe arrantzatzen ahal da. Izokinendako eremua Bidasoa errekan Doneztebeko San Tiburtzio presatik Endarlatsa bitartean eta tarte horretan, Bidasoara isurtzen duten errekan dago.

Amoarrain arrantzarari dagokionez, martxoaren 19tik uztailaren 31 arte irekiko da denboraldia. Abuztuaren 31



Joan den sasoiaren baino 25 izokin guttiago arrantzatzen ahal da aurten,

soia eta hilabete bukaera arte hil gabe arrantzatzen ahal da. Izokinendako eremua Bidasoa errekan Doneztebeko San Tiburtzio presatik Endarlatsa bitartean eta tarte horretan, Bidasoara isurtzen duten errekan dago.

Amoarrain arrantzarari dagokionez, martxoaren 19tik uztailaren 31 arte irekiko da denboraldia. Abuztuaren 31

arte, amoarrainak hil gabe arrantzatze modua izanen da. Joan den urtean bezala, kokka duten amuak debekatuak egonen dira. Orain arte, hemengo arrantza-leek barren aldera kokka bat, arponcillo delakoa, duten amuak erabiltzen zituzten, amoarraina hobeki hartzeko balio zuena. Joan den urtetik, ordea, kokkarik gabeko amuak erabili

behar dituzte eta horrek zailtasuna handitzen du, amoarrainak ihes egiteko aukera gehiago izaten baitu.

Amuki naturala debekatua dago maiatzaren 27a arte Bidasoa errekan, Donezteben, Ezkurra errekan isurtzen duen tokitik behera; Ezkurra errekan, Zubietako zubitik behera eta Ezpelura errekan Oizko zubitik behera.

AZPIEGITURAK

Abelzaintza azpiegiturak moldatzeko dirulaguntzak eman dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamentuak milioi bat euro baino gehiago bideratu ditu mendi aldeko abelzaintza azpiegiturak hobetzeko.

Gure eskualdeari dagokionez, Arantzan 180.000 euro jasoko dituzte, hamabi pista ormigoiztatzeko.

Batzanen, berriz, 56.588 euroko dirulaguntza eskuratuko dute Bidegorrietako haize-energiarako eta bertze 123.411 euro Loizuko hiltze egiten ari diren moldaketa eta hobekuntza obretarako.

Malerrekara pasatuz, Ezkurra Udalak 38.803 euro jasoko ditu hiru pista moldatzeko.

Azkenik, Sunbillak 130.787 euroko dirulaguntza izanen du ormigoizko hiru pista moldatzeko.

INSTALACIONES ARKALE, C.B

Gasu • iturgintza • berokuntza

Sunbilla (Nafarroa) ☎ 610 509 177

BEROKUNTZARAKO ESKAINTZA BAZTAN-BIDASOA

Berokuntza Vaillan galdara itxiarekin, 7 erradiadorekin, instalazic osoa. Lehen kalitate eta bermeko materialak.

2.400 euro + BEZ

Vaillant
CREAMOS BIENESTAR

ELIZONDON EREKI DUGUI

abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

• ateak • leihoak • kontraleihoak

• marpak

• zeramikak (fabrikako prezioetan)

• kontsumo gutxiako kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 561 152 • 607 264 025 • 686 970 725
maximo@abartan.es

BERA

Emakumearen Astea ospatuko da martxoaren 6tik 12ra

Hainbat ekitaldi antolatu ditu aste osorako Uxua Emakume Taldeak

Amaia eta Ainhoa

Uxua Emakume Taldeak, Berako Kultur Bazardearen laguntzarekin, bertze urte batez antolatu du Emakumearen Astea. Aurtengoa martxoaren 6tik 12ra izanen da eta urtero bezala hainbat ekitaldi izanen dira. Herriko emakumeek egindako eskulanekin osatutako erakusketak asteazkenean irekiko ditu ateak aste bukaeraraino. Egunero arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta asteburutan goizetan ere 11:00etatik 13:00etara ikusteko aukera izanen da. Duela gutti zinemari ikusi ahal izan dugun «Princesas» (Fernando León) filma emanen da martxoaren 9an, ortzegunean 19:00etan Kultur Etxean 2 euroren truke. Mikel Salaberrik giratuta, ortziralean afaria eginen da Zubiondo Jatetxean. Afarirako ize-na emateko 012ra deitu behar da ortzeguna baino lehen eta menuaren prezioa 23 eurokoa izanen da. Hurrengo egunean, larunbatean, Ainhoa Arburua psikologoak «Resolución de conflictos» hitzaldia eskainiko du 19:00etan Kultur Etxe-



Argazkia: XAN HARRIAGUIE

Oinez espedizioa Akonkaguatik bueltan

Nafarroa Oinezeko logotipoa Akonkaguako kaxxoan ezarri zuen Joxema Uztik. Eguraldiarengatik arazoak izan bazituzten ere, azkenean lortu zuten.

an eta astea bukatzeko, igandean, Oihulari Klownen «Molestias clownicas» antzeslana ikusteko aukera izanen da 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 4 euroan eskuratu daiteke.

Komertzianteen Elkarteak irudi lehiaketa antolatu du

Larun Haitzpek, Berako Komertzioen Elkarteak, bere logotipoa eta markaren irudia bilatzen du eta horretarako lehiaketa antolatu du. Larun Haitzpek, herriko

komertzioez gain, ostalaritza, enpresa eta zerbitzu enpresak barne hartzen ditu. Lehiaketa Beran bizi, lan egin edo ikasten duten guztiengatzat irekia da. Lehiakide bakoitzak hiru lan aurkez ditzake gehienez eta originalak eta oraindik argitaratu gabek izan behar dute. Bera herria, ostalaritza, komertzioa, zerbitzuak eta elkartearen helburuarekin identifikatzen diren sinboloak izan ditzake eta markaren irudia aukeratzeko orduan arlo ezberdinak kontu-

tan hartuko dira: inguru-nearen kolorea, bestak, aktibitateak eta Berako bertze arloak. Edozein teknikarekin egindako lanak onartzen dira, paperean edo kartulina xurrian, A4 tamainan edo formatu digitalean. Lanak martxoaren 20tik 31ra bitartean, postaz edo Udalera zuzenean eramanez entregatu daitezke. Epaimahaia Elkarteak Kudeaketa Bazardeak osatuko du eta emaitza 15 egunetan jakinaraziko da. Irabazleak 300 euroko saria emanen du.

FLASH

Toki Ona Institutuaren teilatua

Toki Ona institutuak, teilatua moldatzeko 176.618 euroko dirulaguntza jaso du. Oraingo estalkiaren kolore berreko txapa jarriko da.

Birziklai tailerra

Ricardo Barojako Guraso Elkarteak birziklai tailerra antolatu zuen otsailean. Birbira Taldea 6 eta 12 urteko haurrei birziklatzen erakusten aritu da bi saiotan, etxean balio ez duten gauzekin animali eta objektuak sortzen ikasi dute haurrek. Eskolako jantokian egindako lan horiek martxoaren 15etik 24ra bitartean zabalduko den erakusketan bilduko dira. «Birziklatuz pertsonaiak sortuz» izeneko erakusketa Kultur Etxean egonen da 18:00etatik 20:00etara.

Nafarroa Oinez Bertso Saria

Ortziralean, martxoaren 3an Gure Txokoa Elkartearen bertso afaria izanen da, Nafarroa Oinez Bertso Saria 2006 ospatuko da hain zuzen ere.

Drogomenpekotasun Plana

Gizarte Galetarako Bazardeak Askagintzaren laguntzarekin, Drogomenpekotasun Plana jarri zuen martxan iaz eta martxoaren 18an eginen da aurkezpena. 10:00etatik 13:00etara Musika Eskolan izanen da eta jardunaldian egon nahi dutenek 012ra deitu behar dute.

ANSONEA Jaletzaia

Eguneroko menua, karta eta astebururako menu bereziak

Terraza estalia eta Ziberkalvea

Foran Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

Deñe

* Lentzeria
* Mertzzeria

948 631 314
behin plaza 8 - LEBARNA

LABE 4AK7

948 631 076 • BERA

arropak • maindireak
mantak • nordikoak
toallak • kortinak
alfonbrak

Goya

Ailatorre, 3 - Tel: 948 630 080

LESACA

Agiñan hiru ibilbide tematiko mugatzeko lanak emanen dira

Agiña, herrigunea eta Oteiza Museoa ezagutzeko bisitak egingen dira

Aitor AROTZENA

Agiñako estazio megalitikoaren inguruan, hiru ibilbide tematiko mugatzeko lanak prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko asmoa du Udalak. Lanen aurrekontua, Udalak onartu duen proiektuaren arabera, 70.000 eurokoa da, BEZ bane eta proposamenak martxoaren 10eko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Lanak akautzeko epeari dagokionez, lanek erabat akaututa egon beharko dute 2006ko ekainaren 20a baino lehen. Ibilbide tematiko hauetan, Agiña inguruko trikuharri eta harrespilaz gain, Jorge Oteiza eskulturgileak eta Luis Vallet arkitektoak egindako lanak ere ikusteko modua izanen da.

BISITA GIDATUAK APIRILEAN

Proiektu honekin eta batez ere, Oteizaren lanarekin lotuta, Udalak bisita gidatuak antolatuko ditu apirilean, "Egun oso bat Oteizarekin, Lesaka-Oteiza" izenburupean. Lau egunez egingen dira bisita gidatu hauek, «artelan, ingurune, herri eta museo



URZIZKO ARKAZOAN

Agiña ingurua suspertzeko eta bisitariei erakargarri egiteko lanean ari da Udala. Lehenik, hiru ibilbide tematiko mugatzeko dira. Agiña ingurua ez ezik, herrigunea eta Alzuzako Oteiza Museoa ezagutzeko bisita gidatuak ere egingen dira apirilean. Herrietik, Donostiatik eta Iruñetik abiatuko dira bisita horiek.

baten xarmaz» gozatzeko asmoarekin. Egunean sartuko da garaioa, bisita gidatua Agiñako Aita Donostiara, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik, ibilaldi gidatua Lesakako herrigune historikotik Rafael Eneterreagaren laguntzarekin, bazkaria eta bazkal ondoan bisita Alzuzako Oteiza Museora, oraingoan Oteiza Fundazioaren la-

guntzarekin. Egun osoaren prezioa 25 eurokoa izanen da eta in-formazioa eta erreserbak 012 edo 948 217012 telefonoetan egin behar dira lehenbailehen, kontuan hartuz leku mugatuak izanen direla.

Lehenbiziko ateraldia apirilaren 8an egingen da Donostiatik, Anotako Bar Xantitik 8:30etan abiatu eta 19:00ak aldera buelta-

tuz. Apirilaren 9an Lesakatik egingen da ateraldia, plazan goizeko 9:00etan eta 19:00ak aldera itzuliko dira. Iruñetik ateraldia apirilaren 29an egingen da Sarasate pasealekutik 8:30etan eta 19:00ak aldera bueltatuko da autobusa eta azkeneko ateraldia apirilaren 30ean egingen da, berriz ere Donostiatik, leku eta ordutegi berarekin.

FLASH

Beti Gazteren batzarra

Beti Gazte elkarteak urteko batzarra egingen du martxoaren 10ean, ortzirala, 19:30etan lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenetan. Joan den urteko akta irakurri eta, bidezkoa bada, onartu, iazko ekitaldiak eta kontuak aztertu, aurtengo ekitaldiak eta aurrekontua begiratu, kuotak eguneratu eta zuzendaritza batzordea berriro ondotik eskari-galderen txanda izanen da.

GR7 bertso txapelketa

Iñautetako larunbatean abiatu zen Atxaspin GR7 bertso txapelketa. Txapelketa hau herriko jokatu da eta zazpi herriko hiruna bertsolarik hartuko dute parte: Lesaka, Orío, Zarautz, Orereta, Oiartzun, Lasarte eta Mallabiakoak. Hilabetero saio bat egingen da «etxean» eta bertzea «kanpoan».

Euskal dantzen ikastaroa

Martxoaren 11n eta 25ean euskal dantzen ikastaroa eskainiko du Pabxi Perezek Plaza Zaharrean, 16:00etatik 19:00etara. Tantarumairu dantza taldeak antolatuko du, 25. urteurreneko ospakizunen barne.

Haur Tailerra

Martxoaren 6 eta 20an, «Jokoak, hitzak eta sormena» haurren dantza tailerra izanen da liburutegian, 17:30etatik 18:30etara.

TOILAK-MANTLERIAK-OHEKO MAINDREAK
Eskolako hauren mantalak etab...
bortatzen ditugu

Herriko bestelarikako, kamisetak, eta blues perla bakoitzaren logotipo eta izenekin bortatzen ditugu

Dari Rte. Berria 4-a eta ikasi berriko etxebizitza Tel. 948 627 660 - 689 481

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

GOZZALDE
JANARITZKORRA

ETXALAR

Adimen eritasun kronikoa dutenentzat eta familiakoentzat asteburu-pasak Larraburuan

"Arnasa hartzeko familiako proiektua" martxan jarriko da hilabete hondarrean

Joseba eta Nerea

Anasaps-Dizdira elkarrekin adimen eritasun kronikoa duten gaixoei eta euren familiakoentzuzendutako proiektu berriaren paratuko du martxan hemendik aste batzuetara Larraburuan Zahar Etxeko bigarren solairuan, "Arnasa hartzeko familiako proiektua" deitu diote antolatzaileek, Ainhoa Arburua eta Edurne Elizagoinen psikologoek, eta izenak erraten duen bezala, helburua deskantsatzea izanen da, atseden hartzea.

BI ALDEETAKOEN ATSEDENA

Ainhoa Arburua proiektuaren sortzaile nagusiak aipatu digunez «helburua bi aldeetako deskantsatzea izanen da; adimen eritasun kroniko bat duten gaixoei eta beraien familiakoentzuzendutako proiektua» martxan jarriko da hilabete hondarrean. Ainhoa Arburua eta Edurne Elizagoinen psikologoek, eta izenak erraten duen bezala, helburua deskantsatzea izanen da, atseden hartzea.

nitzetan gaixoen familiakoentzuzendutako behar handiagoa izaten dute gaixoei beraiek baino eta horregatik denak elkarrekin ditugu asteburu pasarako programa honetan». Talde txikiak egingen dituzte, 7-8 lagunekoa, eta asteburu osoa pasatuko dute Larraburuan, gisa guztiak ekintzak egingez. Helburua astebururako egitea bada ere, hasieran hilabete behin hasiko dira, martxa hartu bitartean.

EKINTZA FRANKO ASTEBURURU

Gaitz psikologikoak dituzten eskualde osoko gaixoei zuzendua dago programa eta ekintza franko egingen dituzte. «Formazio jarduerak, kirol, kultura besta eta jolaseko ekintzak... azken batean, aisialdia izanen da gure ardatza, gauza desberdinak egi-

nez ongi pasatzeko modu lasai batean» erran digu Ainhoak. Ateraldiak eta bidaiak tikiak ere egingen dituzte.

Sutea Zulobin

Joan den astebukeraren, otsailaren 17 eta 18an, Zulobi parajea sutea izan zen. Aitzineko egunetan pinuak aterratzen eta erretoak erretzen aritu ziren. Ortziral ilunabarrean haizearen eraginez itzali gabe gelditu ziren brasak indartu eta Zulobi parajea erre egin zen. Gaueko 10:30 alderak iritsi ziren Mugaireko suhiltzaileak. Berako eta Lesakako bolondresak goizaldeko 2ak arte lanean aritu ziren, sutea kontrolpean izan arte. Biharamunean ere, larunbatean, ilunabarreko 7ak aldera haize bolada fuertek zirela eta itzali gabe gelditutako brasak berriz indartu zi-



Argazkia: JOSEBA OLAGARAI

Ainhoa Arburua eta Edurne Elizagoinen Etxalarko psikologoak arituko dira begirale lanetan

ren, sua eraginez. Mendiondoko bordatik 500 bat metrotara ailegatu zen sutea, nahiz eta bertakoek ez zuten arrisku unerik bizitu. Pabxiku Irissari alkateak jakinarazi digunez 24 hektarea erre dira guztira, eta erre den eremuan otea eta larrea zegoen. Sute honek ez du aparteko kalte ekologikorik eta ekonomikorik eragin.

Sagardotegira joateko autobusa

Azken urteotako mar-

txari segituz, heldu den larunbatean, martxoak 11, sagardotegira joateko autobusa antolatuta da. Beti bezala, ilunabarrean ateri, Hernaniko sagardotegi batean afaldu, eta goizaldera bueltatuko da autobusa berriz ere Etxalarrera. Joan nahi duten guztiak irekia dago, heldu nahiz gazte, eta izena emateko Elutsa eta Herriko Ostatuan egin beharko da aste honetan. Igandea, martxoak 5, izanen da azkeneko eguna.

USOA
nekozarri kooperatiba
ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tel: 948 435 714 - ETXALAR

XATURETXEA
JATETXEA
948 637 027 - LESAKA

Javier Manterola
Taldeko injezieria
Bergara • gasa • kalifikazio
• 629 446682
Barrameta 4, behe • BERA

IRU BIDE
Erretoria - Asador
Blitzera, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ARANTZA

Inauterietako mozorroaldiaren ondotik Mozorroen Eguna ospatuko da

Martxoaren 18an adin guzietako mozorro xuriak eta nahi duten herritarrak bilduko dira

Nerea ALTZURI

Edonon ere inauteren aroa agurtu dute. Aste honetan bertan herri aunitzetako inauteak heldu den urterarte agurtu dira.

Herriko inauteak ere arrot ongi pasatu genituen otsailaren 9an hasi eta 11 bitarte. Ortze-gun goizean, mozorro xurien gosari eta albaxeru hotsek inauteren hasiera adierazi zuten. Eskolako umeek egindako «puxkak» jauntzi, eskolan soinuariekin dantzatu eta Eguzkia eta Bortaldea auzoak eskean egin zituzten mozorro helduek.

Ortziralean ere egun bete izan zen. Mozorro xuri eta helduek Aien-tsa eta Azkilarrea auzoak egin zituzten. Gaztetxoek, goizean goiz hasita herrian barna auzo-azuo eskean ibiltzeko egun osoa hartu zuten. Ortziralean, Burlada jaietxean 50 emakume inguruk afaria egin zuten. Bertze herritar kuadrila batek



Argazkia: XAN HARRIGAGE

Mozorroek herri kirol ikuskizun bikaina prestatu zuten aurtengoan ere.

ere mozorro xurien lagun afaria egin zuten Ekaitza elkarteak, Pabloenea jaietxeak jantaria prestatuta. Salaberriak guzira girotu zuen goizalderarte.

Larunbatean, talde batek nola bertzeak, oraindik pasatu gabe zeuden etxeak eskean egin zituzten. Arratsal-

dean haur mozorrotuen desfilea egin zen eta Guraso Elkarteak prestatutako berendua dastatu zuten ondoren.

Ilunabarrean berriz, mezaren ondotik herri kirol saio eta jaialdi polita prestatu zuten mozorroek. Lehenik pilota partidua izan zen: Joxe Agustín eta Jabiertxo

mozorro bikotea, Imanol eta Josebaren kontra aritu zen eta azken hauek irabazi zuten, 22 eta 21. Pilota partidua-ren ondotik, mozorroek herri kirol proba konbinatu berexia egin zuten. Bi taldeen arteko desafioan Garikoitz eta Oihan Larretxea aizkolariek talde banatan parte hartu

zuten. Lasterka, aizkora eta motozerra jaialdiaren pausuak izan zituzten. Ordurako, Patxi eta Donato Larretxea anaiak prest zeuden aizkora aposturako. Bakoitzak bere semea hartu eta erakustaldi polita eman zuten bi aita-semeek. Guzira akaututa, 125 lagunek Aterpen afaldu zuten Jon Maia eta Jexus Mari Irazu bertsoariekin. Goizaldeko 3:30ak arte luzatu zen bertso-saltsa.

Honela agurtu genituen inauteak eta ondoko larunbatean kontuak egiteko afaria egin zuten mozorroek. Orain, martxoaren 18ko mozorroen eguna prestatzen ari dira.

Agenda 21eko bilera

Martxoaren 14an, asteartearrekin, Bortzirietako Agenda 21eko foroa egingen da Herriko Etxean 19:00etan. Oraingoan, udal kudeaketa eta partehartzea izanen da solasgaia.

PIKABEA

harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabetia • Astma • Zizareak • Lortu azaleko alergia
Buru mina • Oinenezko • Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataraktak

GIHARRE ARAZOAK

- Bokoortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizetik 9etara. 12etara. Arratsaldetik 2-7etara. Ordub. eskatu

☎ 943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

Zal
Hostala

14 logela,
batnu eta 11 kokin
Ospare
berez

IGANTZI

Martxoaren 4an izanen da Biltokiko urteko batzarra

Baratzondo Elkartearen, berriz, otsailaren 25ean zen egitekoa

Oskar TXOPERENA

Tradizioz batzar garaia izaten da oraingoa herriko elkarteentzat. Joan den larunbatean, otsailaren 25ean, zuten egitekoa Baratzondo Elkarteak. Hurrengo alean emanen dugu bertan gertatutakoaren berri.

Aste bat berandua-gorako, martxoaren 4rako, egin du batzarrean biltzeko deialdia Biltoki elkarteak. Bi deialdi izanen dira: 8:30etarako lehena eta ordu erdi beranduagorako bertzea. Ez da normalean bertze batzarrik egiten eta ondorioz gai garrantzitsuak pilatzen dira bakar honetarako. Urteko ekintzen gainbegiraketa eginen da hasieran eta urteko kontuena ondotik. Joan den urtean airean gelditu zen batzordekideen aukeraketaren gaia ere aipatuko da seguruenik eta batzordearen erdia berri baina lehen hain

mamitsua izaten den "eskaera eta galderen" gaia ere ukituko da. Hamabi lagunez osatua dago Biltoki Elkarteak batzordea. Erdia berritzen da urtero eta hauek dira dagoeneko bi urte lanean eman dutenak: Joseba Migelena lehendakaria eta Xabi Telletxea, Consuelo Migelena, Luisja Txoperena, Miriam Etxarte eta Mari Angeles Telletxea batzordekideak. Lagun hauen ordezkioak aukeratuz emanen zaio akabilla bilerari.

Mus eta partxis txapelketak

Joxe Mari Gaztelumendi eta Josetxo Arburuak irabazi zieten partxiseko finala Virtudes Iguzkiagirre eta Izaskun Tapia ama-alabei. Musean Joxelu eta Mikel Retegi anaientzat izan zen zapela Guillermo Antxordoki eta Xabi Seini finala irabazita.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 18an Biltoki Elkartearen jokatu ziren mus eta partxis lehiaketen finala aritutako bazkideak ageri dira goiko argazkian. Afalondoko sasoi nabari zaie. Behehian, lehengoan erran genuen bezala, 45 mozorro inguru ibili dira etxez-etxe aurtengo iñauteetan. Simonbaita baserrian egindako atsedenditxoan ageri dira hemen.

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

TOLDOOS BAZTAN
TOLDOAK salmenta-konponketa-aloakainua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak
venecianak-PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behea - BERA

BORTZIRIAK

EAK Etxalarko argi-mozketak eta Iberdrolaren jarrera salatu ditu

Enpresa honek kalitateko zerbitzua zor duela adierazi du

ttipi-ttapa

Etxalarko Eusko Alkartasunako udal taldeak herrian izaten diren etengabeko argindar mozketak eta Iberdrola enpresaren erantzun eskasa salatu nahi izan ditu idatzi baten bidez. Arantxa Zubieta, EAko zinegotziak jakinarazi duenez, «*lau urte baino gehiago ditugu arazo berarekin Etxalarren, behin eta berriz izaten baititugu argi-mozketak. Iberdrolarekin aunitan bildu gara eta azkenean, kexa formala aurkeztu ondotik, aitzakihutsak hartu ditugu erantzunean, lasaitasuna emanen digun inolako soluziobiderik gabe. Soluzioa nahi dugu berehala, Iberdrola bezalako enpresa handi batek neuririk hartu gabe ezin*



Eusko Alkartasunaren ustez, Iberdrolak eskaintzen duen kalitatea ez da XXI. mendean eskatzen ahal dena. Etxalarren lau argi-mozketa izan dira 2006an.

gaitu horrela utzi».

2006an, Etxalarren bi hilabetez lau argi-mozketa izan direla salatu dute. Denbora laburre-

koak izanik ere, bizilagunentzat traba dira. Egoerak zerbait hobera egin badu ere, «kalitatea ez da XXI. men-

dean eskatzen ahal dena. Etxalartarrok beritzeak bezalaxe ordaintzen dugu eta kalitateko zerbitzua zor zaigu».

Dantzarineako atentatua gaitzetsi dute alderdi ezberdinek Bera eta Lesakan

ttipi-ttapa

Lesakako Udaleko EAJ-PNV, EA eta Onin taldeek eta Berako EAJ-PNV Uri Buru Bazarrek Martikorenaren Dantzarineako La Nuba diskotekaren aurka ETak egindako atentatua gaitzetsi nahi izan dute. Alderdi hauen idatzien arabera, «*indarkeriak eta holako atentatuak ez dakarte ezer onik herri honentzat».* «Beste aldetik —diote idatzian— ezaguna da gure inguruan Peio Martikorena eta bere familia hainbat lanpostu sortzeaz gain, beti euskal kultura, ikastola eta kirolan laguntzeko prest agertu direla. Aipatzekoa da Berako ikastolak Nafarroa Oinez dela eta bere azkeneko ekitaldian Peioren aipamen berezi bat egin zuela beti ikastolari laguntzeko prest agertu delako».

BERA Zere inguru klase guzietako insektuz (zomarra, zioarri, armilarria, kukuxa...) eta erretai xagutzar gorbita nahi baduzu, deitu! Termito eta Pipin tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zelaia, 42 A • BERA

SAROB SANDERS pentsuak

okindegia

Estreñak, 41 • Tel: 948 620 889 • BERA

Itussia

HIDROKRENTZIA

HIDROSEHERRA

PERNA MARTIKORENA LARRALDEA

Maderas GOMEN

Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izelak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ERROTAZAR

harategia

Bertako produktuak

Eztegara, 3
Tel: 948 630 088
BERA

SUNBILLA

52 lagun joan ziren Formigalera eskiatzera

Jalone O. A.

Joan den otsailaren 18an 52 pertsona joan ziren autobusez formigalera eskiatzera. Goizeko 5:30etan atera ziren herritik eta 15:00ak arte eskiatzen aritu ziren. Joan zirenek, egun ederra pasatu zutela diote, errepikatzeke modukoal

Ulibeltzak mendi taldearen ateraldia

Joan den otsailaren 19an Ulibeltzak mendi taldeak ibilaldia egin zuen. Eguraldiak ez bazien asko lagundu ere, joan ziren hamabost pertsonak ibilaldia arazorik gabe bukatzea lortu zuten. Argazkia, paretazarreko bordan aterata dago, gosaldutuen lekuan, eta su-

kaldariak ere argazkian daude.

Sagardotegiko bidaia martxoaren 18an

Gogoratu datorren martxoaren 18an sagardotegira joateko autobusa antolatu duela Ulibeltzak elkarteak eta txartelak herriko tabernetan hartu daitezkeela. Arratsaldeko zortzi terdietan aterako da autobusa fonda ostatutik. Autobusaren prezioa, hamabi eurokoa izanen da eta afaria berriz, sagardotegian bertan ordainduko da. Sagardotegiko afariaren ondotik, Hernanin trago batzuk hartzeko aukera izanen da eta autobusa berriro goizeko bostetan abiatuko da Hernanitik Sunbillara.



ARGAZKIA: EDURNE URROZ ETA VIDAL IBARRA
Formigalera joandako batzuk eta mendizaleak Paretazarreko bordan.

1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

edredoi-azal nordikoak • kuxinak • albornoak • mantelak
edredoi nordikoa • toailak • ohe estalkiak • maindireak

UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

BERTIZARANA

Ondarearen Interpretaziorako Elkarteak jardunaldiak egingen ditu Natur Parkean

Urteko batzar orokorra ere Bertizen egingen du martxoaren 2tik 4ra

ttipi-ttapa

Ondarearen Interpretaziorako Elkarteak, AIP delakoak, bosgarren jardunaldiak eta urteko batzar orokorra egingen ditu martxoaren 2tik 4ra Bertizko Natur Parkean. Jardunaldi hauek antolatzen ditu Cederna-Garalurelkarrearen, Nafarroako Gobernuaren eta Gestion Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra enpresa publikoaren laguntza izanen du.

Martxoaren 2an, ortzegunarekin, jardunaldien aurkezpena egingen da goizeko 9:30etatik 10etara. 10etatik 14etara, Arkeologiaren eremuan Ondarearen interpretazioaz ariko dira Carlos Alonso, Andaluziako Juntako Kultura Kontseilaritzako teknikaria, Antonio Espinosa, Alicanteko Villajoisako Udal Museo Arkeologikoaren zuzendaria eta Manuel Luque, Burgoako Paleoramakoa.

16:30etatik 20:30etara, Babestutako Natur



Ondarearen interpretazioari buruzko adibideak aztertuko dira Bertizen.

Eremuetako Ondarearen interpretazioaz ariko dira Juan Manuel Salas Rojas, Andaluziako Juntako Ingurumen Kontseilaritzako teknikaria, Javier Benayas eta Maria Muñoz, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ekologia Departamentuko kideak eta Marlene Anaya, A Coruñako INECO erakundeko interpretazio teknikaria.

Ortziralean, martxo-

aren 3an, goizean planifikazio interpretatiboz ariko dira eta dagoeneko ondarearen interpretazioan ari diren pertsonen zerbitzuak aztertuko dituzte. Algeciraseko Jorge Moralesek kontsultoreak sarrera egin eta gero, Aezkoako kasuaren berri emanen du. Ondotik, Francisco Guerrak, Sevillako SEEDA erakundeko zuzendariak Kanarietako Barranco Mas-

cako kasua azalduko du.

Ortziralean arratsaldean, planifikazio interpretatiboarekin segituko dute 16:30etatik 20:30etara. Nafarroako Orgiko Hariztikoko Eduardo Gonzalezek eta Gorka Gorospe, Orgiko Hariztikoko Natur eta Jolas Eremuko Kudeaketa taldekoek. Isabel Ibarrolak, ingurumen hezitzaileak eta Erabilera Publikoko programaren aholkulariak,

Bertizko Jaurerriko lorategian ingurumen arazo bat moldatzeko interpretazio aktiboaren adibidea eskainiko du.

Ortziralean arratsaldean egingen den jardunaldi honen parean, bertze gela batean, gidariak eta ondarearen interpretazioa izaneko jardunaldiak egingen da 16:30etatik 19:30etara. Ondarearen interpretazioan ari ez direnei zuzenduta dago eta lekua 25 pertsonentzat mugatua izanen da. Interpretazioan hasteko eta zerbitzu gidatuetan erabiltzeko formakuntza saioa izanen da, Caja de Burgoeseko Ingurumen Ikasgelako Zuzendaria den Miguel Pinto Cebrianen esku-tik.

Larunbatean, azkenik, Ondarearen interpretaziorako Elkartearen urteko batzarra prestatzeko saioa egingen da goizean, elkartearen kide diren pertsonen zuzendua eta 18etan urteko ohiko batzarra egingen du elkarte honek.

Pitti
estabakizkoak
Tel: 616 513 491

Manufactura de Maq. 74 ZUBIETA

APARAN, S.A.
BRIXOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 450 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BEINTZAko OSTATUA

616 450 014
BEINTZALABAYEN

BOBEKO

Lore eta landareak
Frain autoa - LESAKA
Tfnos: 948 637826

DONEZTEBE

Formigalera eskiatzera eta Xabierrera ateraldiak antolatu ditu Erreka elkarteak

Pirinioetara martxoaren 26an eta Xabierrera martxoaren 11n joanen dira

ttipi-itapa

Erreka Kirol Elkarteak heldu den martxoaren 26rako, igandearrekin, Formigalera irteera bat antolatu du. Urtero irteera bat egiten da eskiatzera joateko eta aurten Formigal aldera joateko aukera izanen da.

Autobusa goizeko 6etan aterako da autobus geltokitik. Apuntatzeko, Nafarroako Kuxak Donezteben duen bulegora joan behar da.

Prezioak hauek izanen dira: helduendako forfait-a eta elurreko aseguria, 31 euro. Haurrendako forfaita eta elurreko segurua, 25 euro; eta autobusa, forfaitgabe eta bidai aseguria, 26 euro.

Errekako bazkideek bortz euroko laguntza izanen dute. Hamalau urte baino guttiago duten haurrak guraso edo tutoreekin joan behar dute. Apuntatzeko epea martxoaren 15a arte egonen da zabalik.

Bertzalde, Javieradan parte hartzeko au-



UTZIANO ARGAZKOR

Doneztebe Futbol taldearen hitzarmena Osasunarekin
Doneztebe futbol taldeak elkarlan hitzarmena sinatu ko du martxoaren 1ean Osasunarekin. Aitzinetik, aurten Donezteben kudeatzen den Osasuna Fundazioko futbol eskolakoekin izanen dira Josetxo eta Cuellar Osasunako futbolariak. Guzira 67 futbolari gaztetxo ari dira Donezteben.

tobusa ere antolatu du Erreka Kirol Elkarteak. Martxoaren 11n izanen da irteera, larunbatarekin. Apuntatzeko Titi Ostatura joan behar da edo 948 450271 telefonora deitu.

Autobusaren prezioa 15 eurokoa izanen da

bazkide ez direnentzat eta 12 eurokoa bazkideentzat.

Autobusa goizeko 5etan aterako da Doneztebetik eta Iruñean geldituko da. Handik Xabierrera dauden 42 kilometroak oinez egin behar dira. Gero, auto-

busa Xabierren bertan hartu eta Doneztebera itzuliko dira.

Dantxarineako atentatuaren gaitzespena

Doneztebeko Udalak ahobatez «erabateko gaitzespena» azaldu du

«otsailaren 14an Dantxarineako La Nuba dantzalekuaren aurkako atentatu terroristaren aitzinean». Urdazubiko herriari, udalari eta batez ere zuzenean kalte-tutako herritarrei bere elkartasuna helarazteaz gain, «honeko ekintzak gure herriaren baretze eta normalizaziorari kalte bertzenik egiten ez diotela» adierazi du Udalak.

Barrikotea Kasinoan

Larunbat honetan, martxoaren 4an, eginen du Kasino elkarteak urteroko barrikotea. Beti bezala, bakailu-tortilla, txuleta, giltxaurrak, gazta eta menbrilloa izanen dira jateko eta Gipuzkoako sagardotegi batetik ekarritako sagardo kupela hustutzen saiatuko dira. Martxoaren 1ean akitzen da izen emateko epea Titi Ostatuan. Aitzinetik 10 euro jarri eta gainerakoa bazkal ondoan ordainduko da.




Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioa • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak




LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Indurra sarea • LEKAROI
948 452121 • 026 494317

LINDURRENBORDA
Nabar sarea • LESAKA
948 632712

ELGORRIAGA

Hiru milioi terdiko inbertsioak egingen dira aurten udal aurrekontuaren barrenean

Zatirik handiena, Balnearioaren lanetan joanen da

ttipi-ttapa

Elgorriagako Udalak 3.747.623,51 euroko diru-sarrerak eta irteerak izan ditu aurten, berriki onartutako udal aurrekontuaren arabera. Hain herri txikia izanik, hain aurrekontu handia izateak badu esplikaziorik, izan ere balnearioan 3 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak egingen dira aurten. Zehazki, inbertsioetan, osotara 3.511.399,68 euro joanen dira eta, aipatu bezala, balneariora joanen da zatirik handiena. Errotako bidea egiteko 230.000 euro inguruko inbertsioa ere egingen da. Inbertsio hauei aurre egiteko, 3.386.945,80 euroko diru sarrerak izanen dira, gehienak Balneario de Elgorriaga en-



presatik eskuratuko direnak.

Jakina denez, Elgorriagako Balnearioa erai-

kitzeko lanek geldialdi bat izan dute, baina Jose Miguel Galarregi alkateak aipatu digunez,

arazoak moldatu eta berehala lanean hastekoak dira, horretarako baimena eman baitute Ma-

drietik. Proiektuan zenbait aldaketa egin behar izan dira, zola ueste baino beratsagoa suertatu delako. Horrek kezka eragin du lanen mar-txa segitzen zutenen artean, egun baletik bertzera garabiak kendu ziztuztela ikusi baitzuten. Baina, behin baimena emandakoan, berehala hasiko dira beriz langileak beraien eginkizunean.

Honela, pilareak beritrik egin eta 16 metroko sakoneran sartu beharko dituzte. Honek, lanak akitzeko denboran ez du aldaketa handirik eraginen, bai ordea aurrekontuan: lan hauek egiteko 606.000 euro gehiago ordaindu beharko ditu Balneario de Elgorriaga enpresak.



Zure lan aukerak kezkatzen zaitu?

Bortzirietako Toki Ona Institutuak lagunduko ditu.

Enpresa ertain eta handietan lanpostu kualifikatu bat lortzeko ikasketak eskeintzen dizkizugu.

Babilergoa, edo garai bateko CDU, egina baduzu Bortzirietako Toki Ona Institutuan Industria Ekipoen Mantenimendua Goi Mailako Heziketa Zikloa ikasteko aukera duzu.


Enpresa produkzio sistema automatizatua hobetzea eta martxan mantentzea izango da zure ardura, gizon-emakume langile talde bat egoki antolatuz.



Hobetu nahi?

- **Industria Ekipoen Mantenimendua Goi Mailako Teknikari** titulua erdietsiko duzu.
- Horretarako espezialitateko alderdi teknikoak menperatuko dituzu (mekanika, elektrizitatea, pneumatika, hidraulika, automatika, segurtasuna, enpresen kudeaketa etab.)
- Ikasketen titulua jasotzeko azken ikasturtearen bukaeran Lantokietako Praktikak egin beharko dira (320 ordu), beraz aukeratutako inguruko enpresetan egingo delarik. Hizkuntza jakinez gero, atzerriko enpresetan (Ingalaterra, Frantzia...) egiteko aukera ere izango duzu.

Informazio gehiago: www.pnta.cfnavarra.es/iesbera
Toki Ona BHI Eztegara pasealekua 34, 31780 Bera
Tel. 948 625 000



ezko**o**ntza 06
gehigarria

 *Barity*
SUTILLAN S.L.



Luis Mariano 16-18
943 63 11 44
20302 Iruun

Ezkongaientza arrop

ANDREGAIA :

Klasikoen berrinterpretazioa

Andregaien modan, sormenak ez dauka mugarik eta bere alderdirik iraultzaile-ena erakusten digu.

Galtzekin jantzitako andregairik imagina dezakezu? Dagoeneko hori ikustea gerta daiteke diseinatzaile batzuek ezkongaien moda abangoardismoarekin bateratzea erabaki baitute. Baina dena ez da hain eskandagarria, batzuetan, mugarik gabeko sormena originala eta sotila suerta daiteke.

Estilo klasikoa,
beti zoragarri egotearen
aldeko apostua

Sobera deigarriak diren gauzetatik ihes egin eta estilo sinplearen aldekoak diren pertsona horietako bat zara? Horrela baldin bada, "bai nahi dut" errateko orduan, jakin ezazu "V" formako eskoateak eta hanketaraino iristen diren gona luzeak direla andregaiak gehien eskatzen dituztenak. Ehun klasikoenak satena, raso eta zeta dira. Zalan-tzarik gabe, diseinu hauekin asmatuko duzu eta zure ezkontza egunean denak liluratuko dituzu.

Traje motzak
freskuak eta arinak
ez ohiko andregaientzako

Batez ere ezkontza zibiletan edo bero handia dagoen hilabetetarako egokiak dira. Hauen artean, 50. hamarkadako bolumen handiko gonetan inspiratutako diseinuak, Christian Dior diseinatzailearen estilokoak nagusitzen dira.



EZKON GONBIDAPENAK
ARGAZKI MUNTAIK
DESPEIDATARRAKO KAMISETAK
e.a.

 IRLAN
948 631 521
Estegia, 26 behe
BERA

ko a bilduma

Itxura estilizatzeko trukoa,
jantzien kontrastea bilatzea bi piezako-
etan

Batzutan itxura estilizatua lortzeko pieza bakarreko soineko osoa ez da irtenbidea, izan ere, gehienok ez daukagu modeloen gorputza. Soberan daukagun gramotxo horiek ezkutatzeko aukera ona da bi piezako konjuntua. Hau da, gorputz bat gonarekin edo gaineratik txala, boleroa edo txaketa bat daraman soinekoa. Azken aukera hau ere oso ona da hotza egiten duen sasoiaren ezkontzen diren andregaiantzako.

GIZONGAIA:

Denboraldi honetan
txuria izanen da
nagusi

Ezkontzeko trajea bilatzeko orduan gizonezkoek gero eta diseinu aukera zabalagoa dute. Denboraldi honetako berrikuntzen artean, txaketa eta galtza txuriak daude, eta gainera, kolore pixka bat duten ator eta korbatekin jantziko dira. Kolore biziko diseinuak eta tela dizdiratsuak ere ikusiko dira. Baita brokatu eta estanpatuak ere.



ZJ
Zalain
jantetxea

Ospakizun berezietako jantokia
Menua eta karta
Sasoian sasoiako platerak

Zalain z/g • Bera-Nafarroa
Tfnoa: 948 63 09 67



MERCHÉ
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo Gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943612626

JUAN J. PIKABEA
senargaiantzako trajeak

DIESEL
Tousu vestitiu

Lois

- Neurrei haundiak
- Galtzak 70 arte
- Atorrak 54 arte
- Jertseak

Amezti z/g.
DONEZTIBE
948 451 670

MARIA
ILEAPAINDEGIA

- MANIKURA
- MAKILLAJEA
- ESTETIZIEN

Zazpi Gurutze, 6
Tel: 948 450 922
DONEZTEBE

Lilura
ileapaindegia

Rosa Seminario 17 - DONEZTEBE - Tel: 948 451 961

Pimpirin
PELUQUERIA ILEAPAINDEGIA

Aitziber
Ubiria Santesteban

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

Prestatu zure
surpegiko
azala
ezkontza
egunarako!!

Amaya
LURRINDEGIA
APAINDEGIA
ILEAPAINDEGIA

- Kurpegi eta gorputz tratamendu guztiak (garbitzea, peeling...)
- Manikura frantsesa
- Makillajea
- Solariuma
- Depilazioa
- Osagarriak

Amezlia z/g - DONEZTEBE - Tfnoa: 948 450 163

Edertasun plana

Ezkontza egunean inoiz baino ederrago egotea lortu nahi baduzue, hona hemen aholku batzuk:

Aholkurik hoberena egunero 8 ordu lo egitea, dieta orekatua jarraitzea eta kirola egitea izanen litzateke. Baina zuen egun handia ailegatu baino lehen, gauza gehiago egin ditzakezue helburu hori lortzeko:

- Aurpegiko eta gorputzeko peeling-a, zelula hilak kentzeko.
- Aurpegiko larruazala garbiketa eta aurpegi-maskara.
- Solarium saio batzuk bere neurrian hartu edo eguzkia hartu ongi babestuz.
- Masaje lasaigarriak.
- Emakumearentzat gorputz osoko depilazioa.
- Gizonen kasuan, bekainak oso iletsuak edo ia elkartuak izanez gero, apaintzeko aukera dago, eta begirada leuntzekoa.
- Manikura eta pedikura. Ezkon-eratzunak jartzerakoan jende guztiaren arreta piztuko dutelako, eskuak ongi edukitze-ko manikura egitea garrantzitsua da bientzat.

MAKILLAJEA

Ezkontza eguna, momentu hunkigarri aunitz dituen eguna da, besarkada eta pozak eragindako malkoz betetakoa. Horregatik, lehendik makillaje probak egitea eskatzen du. Azken momenturako utzi behar ez den gauza da, makillajea eginen duenak zure larruazalaa ongi ezagutu behar du polita gera dadin.

Urteko zein sasotan ezkontzen zaren ere hagitx garrantzitsua da, tonalitate ezberdinak erabiltzen baitira udazkenean edo udaberrian. Ospakizuna goizez edo arratsalde izanen den ere garrantzitsua da.

Edozein kasutan, ezpain distiratsuak, kolore indartsuak eta itzal markatuak ekidin behar dira argazkietan eder ateratzeko. Andregai edertuko duen makillajeak, nahiz eta hagitx landua izan, naturaltasuna, freskotasuna eta arintasunaren sentsazioa eman behar du. Aknearekin arazoak dituzten senargai horientzako, makillaje diskretu eta fina gomendagarria da.



ORRAZKERA

Orrazketa aproposa aukeratzeko, kontuan hartu behar da andregaiak eramanen duen soinekoa, osagarriak, ilearen luzetasuna, ilea nolakoa den eta aurpegiaren forma.

Komenigarria da nahi duzun orrazkeraren inguruko ideia bat edukitzea, zure estiloarekin bat etorriaz, gustura sentitzeko. Profesionalek aholku batzuk emanaz lagunduko zaituzte:

- Soinekoaren eskotea aitzineko aldean izanez gero, ile sueltoa edo erdi bildua eramatea gomendagarria da.
- Sorbalda agerian baldin bada, orrazkera gorra bilduz nabarmendu behar da.
- Andregaien artean ile motza gero eta gehiago ikusten da. Kasu horretan osagarri txiki-kin apaindu daiteke (loreak, lumak...) edo ordezkoetara jo.
- Aurpegiera gogorrentzako ez da gomendagarria orrazkera-bildu tiranterik egitea, horrek oraindik gehiago gogortuko bai du aurpegiera. Holakoetan hobe da ile sueltoa eramatea.
- Aurpegi obalatuak dira orrazkera aukera gehien ematen dutenak. Aurpegi borobilak orrazkera bildu altu batekin estilizatu egiten dira, eta luzeak, burute batekin leundu.
- Orrazkera guztientzako bada dotorezia eta originaltasuna ematen duen azken ikunturik: loreak, lumak...
Ile-apaindegian ematen dizkizute hobe doazkizun apaingarrien inguruko gomendioak.




INTERVIDEO
Fotolab

Ordu batean errebelatua

Merkatuko preziorik onenak

Dantxarinea
LANDIBAR Merkataritza gunean
Tfnoa: 948 599 497




Zaldua
Fotografos

Elizgailu 948 580491 * Donostia 948 450364



ENDANEA

*Ezkontzarako behar dituzun
lore apaingarri guztiak
Zure eta zure gure ezkontza*

Jai Zuzia Auzoa 40, 1-1 (Irungo ospitaleko bidegurutzean)
Tfnoa: 943 641710 • www.endanea.com
9:00etatik 20:00etara irekia
JAI EGUNETAN 9:00etatik 13:30etara



**TELLETXEA
ARGAZKIAK**

Ezkontzetako
argazki
eta album
digitalak
erreportajeak

Pl. Zaharra, 6
LESACA
948 637 281



INTERVIDEO
Ikusentzunezko
produkzioak

Fco. Javier Varela

**Bideo erreportajeak
Profesionala**

- Merkatuko preziorik onenak
- Talde profesional batek egingina
- Ezkontzetan esperientzia handia dugu
- Eskaintza berezia DVDa barne

Tel: 948 599 055
Mug: 609 488 612
Gure Egoitza • 31712 DANTXARINEA
Mendinueta, 7. 2.ezk 31700 ELIZONDO

Ezkontza gonbidapenak



Gaur egun estilo eta prototipo aunitz daude gonbidapen txartelak egiterakoan. Gonbidapenak hautatzerakoan, lehenik zenbat gastatu nahi dugun erabaki behar dugu. Hori kontuan hartuta, aukeratzen hastea dugu; zer paper mota, koloreak, neurriak...



gaur egun barietate handia dago, eta gero eta gehiago erabiltzen dira kolore biziak eta marrazkiak.

Gonbidapenak dira lehendabiziko ikusiko direnak eta inpresio ona egin behar du gonbidatuegan. Kolorea, testura, paper mota eta kartazalak ezkondu behar direnen pertsonalitatea eta gustua irudikatzen dute. Denborarekin eskatu behar dira (6-7 hilabete lehenago).



Paper ekologikoan Paper birziklatuetan tonu xuabeak erabiltzen dira. Lore idorrekin, egurrezko txotekin eta lazoekin itxi ohi dira kartazalak.



Diseinu dibertigarriak: Berriki arte gonbidapenek ez zuten irudirik izaten, eta azken urte hauetan, horix da berrikuntzarik nabarmenena. Ezkongaien marrazkiak kolore biziekin konbinatuak, atal bakarrekoak eta kartazalik gabe, triptiko itxurakoak... egia erran ia-ia norberari bururatzen zaion ideiekin egin daitezke; estilo propiokoak.



Kartazalak: ez dira garai batean bezala ia gehienak laukizuzenak izaten. Gaur egun karratuak eta forma eta diseinu bereziekin eginak izaten dira.

Eta gonbidatuetan pentsa -

BANKETEA

Ezkontza baten arrakasta gehien bat menuan dago, gonbidatuek beti gogoratuko dute egun hartan ongi jan zuten, edo alderantziz, gosearekin gelditu ziren. Bazkaldu aitzinetik, gonbidatuentzako aperitiboa eman dezakezue, argazki erreportajea bukatu arte itxaron behar duten denbora hori arinago pasatzeko.

Jatetxearen aukeraketa denborarekin egin behar da, 10-12 hilabete lehenago, gutxienez.



PASTELETAKO MUÑEKOAK

Azken urte hauetan ere berrikuntza nabarmena izan da bazkal ondotik pastelarekin banatzen diren figuretan. Orain arte ezkongaien figurak klasikoak izan ohi ziren, baina orain, animalia itxurakoak, jantzi informalekoak, dibertigarriak eta baita panpinak ere oparitzen dira.

Aldaketa gehiago ere bada. Lehen figura eta emaztegiaren lore-xorta ematen zen, gaur egun ordea figura bat baino gehiago eta, 2 edo 3 lore-xorta ematen dira, baita emaztegiaren liga ere.

Figura laister ezkondu behar diren bikoteari eman ohi zaio. Lore-xorta, berriz, gehien estimatzen duzunari. Azkenik, emaztegiaren ligak zorte ona ematen duenez, bikoteak nahi duenari.



BEOLA
Posada · Palacio



Zure ezkontza egunean,
otordurik berexiena.

Karrika Nagusia, 1 • ALMANDOZ • Tfnoa: 948 505 002

 Gonbidatuendako
oparitxoak,
andregaiendako
loresortak. eliza edo
epaitegiko apaingarriak...



Altzate 26 • BERA • 948 63 11 21

ZUBIONDO
Jatetxea

350, 160 eta 40
lagunendako hiru jangela
Bazkalondoa nahi bertze
luzatzeko aukera
Auto eta autobusendako
aparkalekua
Haurrendako jolasparkea
Koktelarako leku aproposa

BANKETEA ETA KARTA
eskatu gure ezkontzetako menua



Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 645 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

ezkontza 06


gehigarria



eta... ezkontzen bagara?

Zuen ametsetako ezkontza bidaia dugu.
Eta gainera gonbidapenak dohainik lortu ditzazkezue!



Viajes  **EstivalTour**

Ilekueta 1 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 04 51 / Fax: 948 63 06 41
bera@estivaltour.com / www.estivaltour.com



275 lagunentzako jantokia
Ezkontzetako menu aldagarria
Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
Eguraldi onarekin musika terrazan
Ongi etorri koktaila
Lunch afariak
9.30ak arte musika
Gaua hotelean pasatzeko
taldeentzako prezio bereziak

...

Suita oparitzen dugu ezkontza gauean
Arrosak eta inprenta hotelaren kontura

...

Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe!!

Tfnoa: 948 635 000 • www.etxalar.com



GIZARTEA

Xabierera erromesaldia antolatu du Arkupeak elkarteak

Martxoaren 9an Erromesen meza aditu eta Xabier jatetxean bazkalduko dute

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen eta pentsionisten elkarteak martxoaren 9an Xabierreko gaztelura erromesaldia antolatu du.

Autobusen irteera ordutegia, otsailaren 19tik 28ra egin behar zen izen ematearen ondotik adierazi zaie bidariari.

Behin Xabierreko gaztelura ailegatutakoan, eguerdiko 12etan gazteluko elizan emanen den Erromesen Mezara joanen dira Arkupeak elkarteak.

BAZKARIA XABIER JATETXEAN

13:15etan, bazkaria izanen dute Xabier jatetxean, honako menu bereziarekin: langostinoak plantxan, zainzuriak, fritoak, tigreak eta kalamarak; piper betetak, ebeko nahaskia; hojaldea espinaka eta ganbekin; marisko koktela; bildoski errea letxuarekin eta tarta ebeko izozkiekin. Hori bustitzeko kaba botil bat bortz lagunentzat, ura, ardoa, kafea eta kopa normalak izanen dira. Bazkal ondoan 16:30etatik 18:30etara dantzaldia izanen da Joxe Angelekin eta 18:45etan abiatuko dira bueltan.

ANTXIBOKIA
Xabierko gaztelu ikusgarria bisitatuko dute Arkupeak elkarteak.



DUPLEX ETA APARTAMENTUEN SALMENTA ORNOZ-MUGAIRIN - BAZTAN

Auzune pribatua, igerilekua, paddel, frontoia eta berdeguneekin.
Neurri ezberdinetakoak 1, 2 eta 3 logeekin 125.050€tik aurrera (+BEZ).

Eraikitze lanetan ari dira.



Haizea 2002 Karobide 10 behea • Villava-Atarrabia (Nafarroa) 948 361 083
info@haizea2002.com • www.haizea2002.com

NATURAREN ERDI ERDIAN
BERTIZKO NATUR
PARKEAREN PAREAN
Iruñetik 25min. bakarrk,
Iruñetik 30min. eta Donostiatik 40min.

HAIZEA

GOIZUETA

Agenda 21 Programan egonen da herria eskualdeko beste batzuekin batera

Esteban AROTZENA

Leitza, Lekunberri, Larraun eta eskualdeko beste hainbat herriekin batera Agenda 21ean elkarlanean ari zireko akordioa hartu berria du Goizuetako Udalak. Programa honen barenen lehenengo pausoa inkesta bat egitea izanen da, alderdi guzietatik –soziala, ekonomikoa...– herriaren egoera aztertu ahal izateko. %80ko subentzioa izanen du honek.

Agenda 21 delakoa ez da oraingo kontua.

Rio de Janeiron sortu zen 1992an, mende honetan munduko garapenak zein bide hartu behar duen eztabaidatu zenean. Orain berriz, herri eta zonalde txiki-tara eraman nahi da hori, baina helburu berarekin: etorkizuneko garapena nolakoa eta nondik norakoa behar duen aztertu eta eztabaidatzea.

Baztanen eta Bortzietan, esate baterako, lehengo udan ekin zioten Agenda 21eri. Hasteko, 600 inkesta egin



ARTIBASOKO

Agenda 21 interesgarria izan omen daiteke herriaren garapenerako.

ziren, herritarrek somatzen dituzten premiak eta gabeziak zein diren jakiteko, besteak beste. Geroztik, inkesta hauen emaitzak oinarritzat hartuta, gai ezberdinak lantzeko lan-taldeak eta foroak egiten ari dira alpatutako bi bailaretan.

Xalba Indakoetxea presidente

Otsailaren 18an egin zuen Umore Onak urteko ohiko batzarra. 34 bazkide elkartu ziren, eta hauen botoei esker,

Xalba Indakoetxeak bete du hurrengo bi urteetan elkarteko presidentearen postua. Ander Gaston, berriz, idazkari izanen da. Mari Karmen Lujanbiok, Antton Elizegik eta Jon Makazagak osatzen dute komisiorako boskote berria. Bestalde, elkarteko bazkide izan nahi zuten sei herritarrek aho-bateko baiezkua jaso zuten.

505 litro olio

Ecogras enpresak udalari jakinarazi dio-

nez, sukaldean erabiltzeko 505 litro olio jaso ditu 2005ean. 328 herritarrek parte hartu omen dute birziklatze sistema honetan.

Inauterietako musika

Inauterietako musikaren aurrekontua 3.450 eurokoa zela jakinarazi zien mozorroen taldeak Udalari eta Umore Ona elkarteari. Bi erakundeek eta aspaldiko ohiturari jarraituz, bakoitzak heren bat ordainduko dute, 1.150 euro alegia.

ARESO

012 Infolocal zerbitzua martxan jarri du Udalak

Juana Mari SAIZAR

Herritarrentzako zerbitzu berri bat jarri nahi du martxan Udalak, 012 Infolocal edo Udala hitz egiten deitzen da. Ziur ohitzea kostako dela baina erabili beharrekoa izango da, honek duen aurrekontua amortizatzeke. Zerbitzu honek duen abantaila jendeak behar dituen ziurtagiriak, enkarguak, paper

kontuak diren gehienak, telefonoz eskatu eta zuzenean egingo dituzte. Baita kekek, proposamenak, ideia berriak, deialdiak... egiteko ere baliagarria da. Beste herri batzuetan jada martxan da eta etekin handia ateratzen ari dira.

Tratu txarrak

Gurutze Gorriak proposamen berri bat egin

ziren Udalari; tratu txarrak jasaten dituenentzako telefono mugikorra jarriko da eta botoia sakatuz gero, deia nondik heldu den lokalizatzen dute eta behar diren babesak martxan jartzen dira.

Ludoteka

Ludoteka berria ere martxan jarri nahi da. Proposamena Euskara



ARGAZKIA: JUANA MARI

012-Infolocal edo Udala hitz egiten proiektuan sartuko da Aresoko Udala ere.

Zerbitzuak egin du eta Udalaren laguntzarekin eta erabili behar duten familiaren kuota batez finantziatuko da. Monitore bat etorriko da as-

tean behin tailerra, jo-kuak... egiteko. Proposamena egina dago eta orain erantzunarekin zehaztuko dute ordutegia eta eguna.

LEITZA

Karrape Irratiak 5.300 euro bildu ditu Saharakoei laguntzeko

Otsailaren 9tik 11ra izandako uholdeek kalte handiak eragin dituzte

ttipi-Itapa

Otsailaren 9tik 11ra Argeliako Tinduf lurraldean egindako euri tropikalek uholdeak eragin zituzten han kokatuak dauden Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan. Azpiegituren erdia baino gehiago kaltetuak suertatu dira. Errefuxiatuen artean ez da inol hil, ezta larri zauritu ere, baina egoera aski larria da. Gurutze Erdi Gorriak emandako datuen arabera, «12.000 familia inolako babesik gabe gelditu dira, soinean daukatenarekin».

Egoera honi aurre egiteko, Karrape Irratiak, Saharar Herriarekin Elkartasun Taldearekin batera diru-bilketak kanpaina egin zuen otsailaren 14tik 17ra eta entzuleen erantzuna «ikaragarri ona» izan dela aipatu digu Unai Zabaleta irratiko esatarik. «5.300 euro bildu ditugu lau egunez eta oraindik jendea deika ari da dirua nola ematen ahal duen galdetuz. Ho-



UTZIANO ARGAZKOR

Hamabi mila familia inolako babesik gabe gelditu dira Tindufen.

riei esaten diegu, badaela kontu bat irekia Euskadiko Kutxan: 30350012740120086016 zenbakia. Guk dirua horrerara bideratu dugu eta hortik Gurutze Erdi Gorriara bidaliko da».

«ASTEKO PAGATIK BOST EURO»

Dirua eman duten guzaien borondatea esti-

matzekoa bada ere, kasu bitxiak ere badaudela aipatu digu Unai Zabaletak: «batean hiru ume etorri ziren, bat oso txikia gainera, Sahararen alde bere pagatik 5 euro eman nahi zituztela esanez. Beste entzule gazte bat, paseora atera kaskoekin eta kanpainaren berri entzun zuenean, buelta eman

bankuan dirua atera eta irratira etorri zen, 300 euro emateko. Harritzeko erantzuna izan da».

Partikularrek ezezik, erakundeek ere bere laguntza eman dute, tartean Aresoko Udalak. Elizan ere, ari dira Tindufeko kanpamentuetako uholdeek eragin dako kalteak moldatzeko dirua biltzen.

2,6 milioi euroko aurrekontua izanen du Udalak

ttipi-Itapa

2.630.574,13 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurturten herriak, udalak hasiera batean onartutako aurrekontuaren arabera. Gastuei dagokienez, ondasun eta zerbitzu aruntetan 992.674 euro joanen dira, langile gastuetan 626.430 euro eta inbertsioetan 431.554 euro. Transferentzia aruntetan 288.103 euro joanen dira, beste gastu txikiago batzuekin batera.

Diru-sarrerari dagokienez, zerga ezberdinen bidez kasik 900.000 euro sartuko dira udal kutxetan; tassa, prezio publiko eta besterekin 267.912 euroko sarrera izanen da eta transferentzia aruntetan bitartez, 904.128 eurokoa. Herri lurra aprobetxatzeagatik eta ondareari buruzko beste diru sarrerak 292.862 eurokoak izanen dira.



ZALDUBI
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Adonza

Etxetresnak · Armairuak
Komunak · Manparak

Tel: 948 580 562 - Faxa: 948 581 859
Zaldubi Industrialdea - 31730 IRURITA

luis
cestau
baralbar

arkitekto
teknikoa

leitza
607204485

lucésba
@
msn.com

Ark_b arkitektura bulegoa
Calle Lana Rana
Huarle Galtzal 7 - 31860 Leitza - 64500476 tel
Erakuntza Hirigintza Udal-oholularitza

BAZTAN

Baztandarren Biltzarra uztailaren 15 eta 16an ospatuko da

Kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea martxoaren 22an akituko da

ttipi-ttapa

Uztailaren 15 eta 16an ospatuko da aurtien Baztandarren Biltzarra. Gogoratuko duzuen moduan, Baztandarren Biltzarra elkar-teak dei egin zuen urtarilaren hondarrean, baztandarrek bere besterekiko duten konpromisoa neurtzeko. Lan-kidetzaren gabeziak handiak badira ere, plaza jartzen den karpasostaturako lan sistema bat planteatzen zen elkar-tearen oharrean. Otsailaren 17an, Baztandarren Biltzarra Elkar-tearen batzordea elkartu zen Elizondoko. Herrien erantzuna modu baikorrean baloratu zuen elkar-teak, hama-bortzetik hamalau eta Elizondoko talde ezberdinak lanerako prest agertu baitira. Hori horrela izanik, baztandarren Biltzarra 06 ospatzea erabaki zen, uztailaren 15 eta 16an hain zuzen. Talde aunitzek bere kezka ere agertu



Horrelako irudi ikusgarriak izanen dira aurtien ere Baztandarren Biltzarrean.

zuten, beraien txanda desfilearekin batera izaten ahal ote zen. Horrela izatekotan, ezin izan zuten desfilean parte hartu. Hori horrela izan ez dadin lanean ari da Baztandarren Biltzarra, txanda hori karroza egiten ez duten taldeekin osatu ahal izateko aukera aztertuz, beti ere talde horiek ados baldin badaude.

Edozein gisara, karpasostaturako eta txanden zozketaren gaia aitzinera-go landuko dituzte.

HURRENGO BILERA MARTXOAREN 11N

Afera honen konponketa bide onetik badaie ere, hemendik aitzinera laguntza falta duten bertze lan batzuk indartzeko eginahalak egingen ditu Baztandarren

Biltzarra elkar-teak. Modu berean, bertze helburu bat batzordea berri indartzea izanen da. Guzti honetarako, martxoaren 11n, larunbatean, 19:00etan bilera irekia egingen dute gai hauek joratzeko.

Bertze aldetik, besta iragartzeko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea ireki da martxoaren 22a arte



Leire Pacheco «Iñigo Arista» lehiaketan saria

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxe-ko Leire Pacheco Dozagarat, 6. mailako ikasleak «Iñigo Arista» erakundeak antolatutako lehiaketan idazlanean saria lortu du. XXV. edizio honetan 4.000 ikasle baino gehiagok hartu du parte, haien artean 30 sarituak izan direlarik.

Turismo plangintza

Turismo plangintzaren barrenean zenbait ekitaldietarako diru-sailak sortuko ditu Udalak: Udaberriko Feriarako 3.315 euro bideratuko dira; «Baztan, el despertar de los sentidos» argitalpena berrargitaratzeko 5.153,86 euro; Turismo Bulegoan arreta emateko langileak kontratatatzeko 10.071,60 euro; Berroeta-Abartan-Ziga eta Amaiur-Urrasun-Arizkun ibilbideen argitalpena egiteko 2.378 euro eta honen testuak idatzi eta itzultzeko 600 euro eta aitzinetik uste gabeko bertze gastuendako 2.000 euro.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontralutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Enenta aitortpenak
- Ebarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bitorio, 71-behe
Tel: 948 637 050
Faxo: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxo: 948 133 713

Ginko
M. Karmele Tolosa

21700 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak: 617 350 025 - 667 694 867
e-posta: zumeid@txarra.es

guzti batzuk uztatu eta aurreztatu ofiz

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMATZEEK
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tlono: 948 630 735 - 407 404 781

BAZTAN

Sorosle titulazioa ateratzeko ikastaroa antolatu da aurten ere Giltxaurdin

Anbulantziako Tekniko Laguntzaile ikastaroa ere egin nahi da

ttipi-ttapa

Elizondoko Giltxaurdi udal kirol instalazioetan, joan den urtean bezala sorosle edo sokorrista titulazioa ateratzeko ikastaroa egiteko asmoa dute, Iruñeko DYArekin laguntzarekin. Sorosle ikastaroaz gain, ATA, edo Anbulantziako Tekniko Laguntzaile izateko ikastaroa ere atera nahi da.

Horretarako, jendea dagoeneko apuntatzen ahal da, behien gutieneko taldea lortuz gero, ikastaroa aitzinera eramateko gestioak egiten baitira. Sorosle ikastarorako guttienez 15 lagun behar dira eta gehie-

nez 25. Giltxaurdi udal kirol instalazioko bazkide ez direnek 340 euro ordaindu beharko dute eta bazkideek 300 euro. Anbulantziako Tekniko Laguntzaile ikastarorako prezioak berriz, bazkide ez direnendako 350 euro eta bazkide direnendako 315 euro izanen dira.

Izen emateko Giltxaurdiko telefonora, 948 452301 telefonora deitu beharko da. Gutxieneko taldea osatzen denean, Giltxaurditik hurremanean jarriko lirake beraiekin eta bilera egiten zen, ikastaroen nondik norakoak zehatzago azaltzeko.



Arraiozkoa

Igeriketa ikastaroetan izen emateko epea zabalik
Igeriketa ikastaroen hirugarren txandarako izen ematea zabalik dago Giltxaurdi udal igerilekuan. Otsailaren 27tik martxoaren 5era Baztanen erroldatuek eman ahal izanen dute izena, eta martxoaren 6tik 10era gainontze-koek. Ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Jaioberriendako igeriketatik hasi eta helduak bitarte, adin eta maila ezberdinetako igerilariek aukera izanen dute ikastaroetan parte hartzeko.

Alkatearen kudeaketari buruzko «gezurrak» salatu ditu Baztango EAK

«UPNk ez du egiazko argudio-rik eta horregatik gezurra eta faltsukeria erabiltzen du Baztango alkatezatik egiten ari garen lana erasotzeko». Solas hauekin erantzun zien Virginia Aleman alkateak UPNk prentsaurrekoan errandakoei.

Arraiozko merkataritza guneari dagokionez, «erakunde ezberdinen aitzinean proiektuaren segimendua egin dut, nere lana betez» erran du alkateak. Iruitako Gizarte Zentroaren aferan, udal teknikarien aholkuak segitu dituztela adierazi zuen.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 133
Zaguamandiko errep. 1. km
URDAZUBI

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iariate 33,1º D · 31700
948210963 iruñea · paulino caballero 15,1º A · 31002

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
AMAJUR • 948 453 060

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iariate karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 · 948 581 853

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Perrion egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 · ARIZKUN

abokatua
Carlos Garaikoetxea
Etzenike
948 521 498
948 540 433
Fardobako errep. 12
Arriola 30
ELBATE

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

Dantxarineako La Nuba dantzalekua erabat hondatu du ETAk jarritako lehergailuak

Udalak ahobatez salatu zuen atentatua, «herritarrei kalte bertzerik eragin ez dielako»

Margari eta Koro

Otsailaren 14an Dantxarineko Landibar benta jaso zuen erasoaren kontu nahiko hitz egin da. ETAK jarritako bomba-autoak kalte larriak eragin zituen La Nuba diskotekan. Biharramonean, Urdazubiko udalak gertakaria ahobatez salatu zuen ez ohiko batzarrean.

Horretaz gain alpatzekoa da ondoko egunetan langileak fuego aritu zirela garbiketa lanetan, eta larunbatean goitiko pisuko dendak ireki zirela. Pisu horretako kalte handienak jabetxeak jaso zituen, le-

hergailua jarri zen aldean kokatua dagoelako, eta beraz, zati hori ez da ireki, baina gainerakoa ez zen hainbertze kalte. Nabarierik kanpoko aldera da, guzti-guztia kristala zelakoz eta hautsi ondok, kristala zegoen tokian probisionalki txapak jarri dituztelako, behe-itiko argazkian ager den bezala.

Azpiko aldean dau den bertze bi jabetxe, osatua, diskoteka, jokaretoa eta dendak ibitza segitzen dute, eta zaindari berezien zainzapean. Dena den, zati hau ere ahal bezain fita ireki nahi dute.



URDZUBI ARIZABIA

Sagarnotegietara ateraldiak

Sagarnotegiko garaian gaudela ez da dudarik, eta horren adibide bat gure huntan antolatutako irteerak dira: gan den larunbatean, otsailaren 18an, "Ugarana" emakume taldeak antolaturik 25 lagun Adunako sagarnotegira gan ziren; eta martxoaren 18rako bertze irteera bat antolatu dute Urdazubiko gazteek. Izen ematea Karreteron edo Montxon egin behar da martxoaren 1a baino lehen, eta momentuan 20 euro ordaindu behar dira.

Eskual txotxongiloen topaketa

Bi urtetatik behin Zugarramurdin ospatzen den "Eskual txotxongiloen topaketa" aurten

eginen da seigarren aldiz. Momentuan dakiguna da apirilaren 22 eta 23ko asteburuan eginen dela. Taldeak eta ordutegia aintzinago emanen ditugu.

HERRIKO ETXEO EDINTEGIA

CAFE DE ARAK

MAIXAN ETA VÉRONIQUE SARA • TEL. 0559542519



ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

SEAT, VW, HYUNDAI, AUDI

Bananta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESKA (sareta Beratik)
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

Landibar EGUNERO IREKIA

ZENTRO KOMERTZIALA

300m pertume markarik ezagunenekin, usain-ona, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

SEMPERE

Lanak eginen dituzte herriko aintziran segurtasuna eta husteko sistema hobetzeko

Bortz astez ezin izanen da lakuaren itzuli osoa oinez egin


Franck DOLOSOR

Herriko aintziraren inguruan dabiltzanak ohartu dira egun hauek ur gutti dagoela lakuan. Martxoaren 13an, Sarako Hiriart lantegiak lanak hasiko ditu segurtasuna eta aintzira husteko sistema hobetzeko. Lan hauek urtegiaren kokatuko dira bereziki eta bi partetan eginen dira, Herri Urrats aintzin eta ondotik. Herriko Etxeak espero du lanak bururatzea uda aintzin, jende aintz ibiltzen baita orduan toki hortan.

Herriak 1964ean eraiki zuen aintzira. Geroztik lan aintz egin da toki hori hobetzeko baina sekulan ez omen dira berriitakoak husteko ur azpian dauden hodiak. Hauen bamean ibili diren kamerek erakutsi dute juntak gaizki daudela eta arralidurak ere badirela. Hodi zaharra tapatuko da eta berri bat ezarriko da lakua eta tenis eremuaren ondoan den uraren mai-



la zaintzeko etxola artean. Hodi berria pasatzeko urtegia, hau da helikopteroak lurerratzeko eremua, zilatu behar da. Sei metrako ziloa eginen da hodia pasatzeko eta lan hori izanen da operazio hunko momenturik zailena. Lurra mugitzeko, bi pala haundi ariko dira lanean, hauen artean bat Bordenetik ekarriko dute. Lanen denboran, bortz astez bederen ezin



Lakua husteko ur azpian dauden hodiak berrituko dira. Sei metrako ziloa eginen da hodia pasatzeko eta hori izanen da unerik zailena.

izanen da urtegiaren gainetik oinez ibili. Lanek 162.994 euroko gastua sortuko dute.

Paueko Kontseilu Nagusiak %35 eta Europak %45 beren gain hartuko dute.

FLASH

Saroia Galarragari bi urteko zigorra

Frantziako justiziak bi urteko presondegi zigorra eman berri dio Saroia Galarraga senper-tarrari. Urte bat eta hiru hilabeteko zigorra ukan du Bruno Josié bere mutil lagunak. Justizia epaitegiak emandako erabakiaren arabera biek bi apartamendu eta garaje bat alokatu zuten ustezko ETA kideak laguntzeko.

Ebasketa Lizardiko bi saltokitan

Lizardiko etxegintza saltoki batean ebasketa bat gertatu da. Ebasle bat bi herriko saltokitan sartu da. Batean ez du deus atxeman baina bigarrenean dirua ebatsi du, kutxa hustu baitu. Piska bat berantago gauza bera egin zuen Bidarten ere.



bentamiguel

donda, jantzia eta iverak

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

Etxeko
Lakuek
Jantzikidea
Untalagia

Ibardingo Lepoa • ☎ 948 631209

Okindegia
Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)

Espezialitatea parrillan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxo!



Ordoki Industriaidea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

SARA

Hogeita bortz Bai Euskarari ziurtagiri banatu dira herrian

Sara izan zela Iparraldeko lehen esperientzia erran du Kontseiluak

Laetitia eta Sandrine

Sarako sektore desberdinetako 25 eragilek Bai Euskarari ziurtagiria eskuratu dute euskarren alde engaiamendua hartzeagatik. Euskarren Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak omendu dituzte Bai euskarari ziurtagiria lortu duten 25 saltegi, elkarre eta hainbat erakunde. Xabier Mendiguren, Kontseiluko idazkari nagusiak, adierazi du «Saran herriarek euskarren alde egiten duten lana txalotu nahi dugu».

Iparraldean Bai euskarari ziurtagiriak duen garrantzia azpimarratu du Kontseiluak «Sara

izan zen iparraldeko lehen esperientzia, esperientzia pilotua».

Mixel Etxeberri gogoratu du «Orain bi urte Saran Bai euskarari ziurtagiriaren bidez engaiamenduak eskuratu zituzten eragileei zorionak eman nahi diegu urteotan egin duten lana gatik».

Bestalde, Sarak euskararen sustapenean duen papera azpimarratu da. Sarako auzapezak azaldu du «Sarako herria beti atxikia izan da euskarari eta aintzindari izan da Bai Euskarari bezalako ekimenetan».

Bai Euskarari ziurtagiria eskuratu dutenel



Uztizko iragarpena

Saran Bai Euskarari ziurtagiria eskuratu duten eragile batzuk, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkariarekin eta Jean Aniotzbehere auzapezarekin.

eman zaien eskerraren adierazle gisa Jose Luis Zumeta margolariak Bai Euskarari ziurtagiriarentzat eginiko lamina bana opanitu zale elkarte guztiei. Bukatzeko Kontseiluak eta Konfederazioak Herriko etxearen laguntza, Turismo bulegoarena eta euskalgintzarena eskertu dute, «ezinbestekoa izan baita beraien laguntza lan hau aurrera eramateko».

Errugbia

Saratarrak otsailaren

19an igandearrekin, Azkaineren aurka aritu dira. Denbora txarra izan eta ere joko ona erakutsi dute. Erreserbak irabazi du 0-10 bainan lehenak galdu 12-3. Martxoaren 5ean, igandearrekin, Sara joanen da Pomarez-era jostatzera eta martxoaren 11ean larunbatarekin kanpoan arituko dira Puyooren aurka.

Sara korrika martxoaren 26an

Sarako lasterketa taldeak antolatzen du mar-

txoaren 26an, igandearrekin, lasterketa bat. Goizeko bederatzietan aterako dira Sarako plazatik, 25 kilometroren tizat mendian barna erdijabetasuneko iraualdian. Mالدakatua +1443 metro eta -1442 metro da. Parte hartu nahi dutenek, Sarako turismo bulegoan ematen ahal dute izena, telefono zenbaki huntara deituz 05.59.54.20.14 martxoaren 19a arte. Izen ematea 12 euro da. Lasterketa eta gero iraganen da talo jatea.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrek S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Ez da datu berririk.



SORTZEAK

Mikel Zabala Ormazabal, Hondarribikoa, urtarrilaren 29an.

Aimar del Moral Zaratiegi, Elizondokoa, otsailaren 3an.

Iraia Urrutia Maisterrena, Elizondokoa, otsailaren 5ean.

Oihan Lujanbio Sanchez, Sunbillakoa, otsailaren 5ean.

Ane Etxalar Zugarramurdi, Sunbillakoa, otsailaren 8an.

Janire Dagerre Ansalas, Berakoa, otsailaren 10ean.

Garazi Larralde Jaurena, Urdazubikoa, otsailaren 15ean.

Naia Berruet Ballester, Irungoa, otsailaren 11n.



HERIOTZAK

Manuela Dufurrena Lastiri, Erratzukoa, otsailaren 11n, 83 urte.

Miguel Maria Arotzena Otxotorena, Almandozkoa, otsailaren 13an, 68 urte.

Juan Martin Elizalde Arriada, Arizkungoa, otsailaren 13an, 83 urte.

Agapito Aintziari Zelaieta, Zugarramudikoa, otsailaren 18an, 64 urte.

Maria Jesusa Arretxea Dorregarai, Azpikuetakoa, otsailaren 18an, 82 urte.

Concepcion Agerregere Alkasena, Zizakoa, otsailaren 10ean, 89 urte.

Maria Teresa Mazizior Albistur, Sunbillakoa, otsailaren 15ean, 92 urte.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



**Xanti
ITURBIDE ALMANDOZ
II. URTEMUGA**

*Bigarren urteurrenean
Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA.

ARETO-FUTBOLA

Iruridak irabazi du Baztan-Bidasoako txapelketako kopa lehiaketa

Final ikusgarria 4-2 irabazi zion luzapenean Doneztebeko Titi Ostatuari

Aitor AROTZENA

Otsailaren 12an jokatu ziren Doneztebeko kiroldegian Baztan-Bidasoako areto-futbol kopako azken partidak. Hirugarren posturako lehian, baztandarren arteko norgehiagokan, jaun eta jabe izan zen Aise taldea. Goizalde Ostatuok baino helduxeagoak izanik, beraien beterania nabarmendu zen eta nahiko aisa gailendu ziren, 8 eta 4ko emaitzarekin.

Ondotik, kopako final handiaren txanda izan zen. Ligan bigarren izan zen Irurita eta laugarren izan zen Doneztebeko Titi Ostatuak ziren aurrez aurre. Partida polita, borrokatua eta orekatua eskaini zuten bi taldeek eta luzapenera arte ez zen txapelketa irabazi.

Lehendabiziko minutuetan elkarri neurria hartzen aritu ziren bi taldeak, baina lehen zati honetan aukera gehiago eta garbiagoak izan zituen Doneztebeko taldeak, nahiz eta Irurita ongi itxi zen gibelean. Baina Titikoek gehien estutzen zutenean ailegatu zen baztandarren lehendabiziko gola, kórner batean buruz sarrera errematatu zutenean. Doneztebarrak berdinketaren bila saiatu ziren, baina 0-1eko emaitza horrekin ailegatu ziren atsedenaldira.

Lehen zatian aldeantiz gertatu baldin ba-



Irurita taldeak luzapenean irabazi zuen kopa lehiaketa.

zen ere, Iruridak gehien dominatzen zutenean ailegatu zen Titikoek bako berdinketaren gola. Berdinketaren gola ere ondotik, kontrolik gabeko minutu batzuk ailegatu ziren, baloia eta jokalariek harat-honatan ibili ziren eta jokua bizkortu zen neurri berean zakartu ere egin zen. Kontraeraso batean bigarren gola egin zuten Iruritakoek, baina abudo xamar ailegatu zen binakako berdinketaren gola ere, kórner batean.

Arauzko denbora binako berdinketarekin akitu ondotik, luzapenean kontraeraso batean ailegatu zen Iruritako hirugarren gola. Denbora gutti gelditzen zenez, atezain-aurrelariarekin jokatzea erabaki

zuten Titikoek, baina arriskua gaizki atera zitzaien, baloia galdu eta kontraerasoan, laugarren gola sartu baitzuten baztandarrek, finala erabakiz. Azkeneko emaitza, beraz, Iruridak 4; Titi Ostatuak 2.

Finalaren ondotik, kopa eta ligako sariak banatu ziren. Lehenik, saskia zozketatu zen eta 5.396 zenbakiari egokitu zitzaion.

HAINBAT SARI

Kopako finaleko golik onena, Titi ostatuok Jon Apeztegiaren lehenbizikoa izan zen. Epailerik onenaren saria Alberto Romanek eskuratu zuen. Kopako hirugarren posturako partidako jokalaririk onena, Aise taldeko Josu Arrieta izan zen eta finaleko

jokalaririk onena Iruritako Itaki Etxandi. Bigarren mailako pitxitxia Sasoi Eskabazioak taldeko Jon Maritxalarizan zen eta lehen mailako golegile nagusia Arraiozko Dani Etxeberria. Bigarren mailako atezainik onena Baletx peñako Xabi Pagola izan zen eta lehen mailako Haizegoa ostatuok Angel Urtxegi.

Bigarren mailako jokalaririk onenaren saria Xanpaleko Asier Hermandorenak eskuratu zuen eta lehen mailako jokalaririk onenarena, Kortarixarreko Pabi Barberenak.

Kiroltasunaren sariei dagokienez, lehen mailan Juanma Jardin taldearentzat izan zen eta bigarren mailan Mendi Txuri taldearentzat.

FLASH

Nafarroako 2. mailako paleta txapelketa

Carmelo Behro eta Pabxi Jaurenak Nafarroako 2. mailako paleta goma txapelketa irabazi dute aurten ere. Bikote honek Lesakako Batzoki Eikarteak antolatzen duen txapelketa parte hartu zuen eta lehengo urteko txapela defendatzen zuen, gure eskualdea ordezkatzuz. Lesakako txapelketatik ateratako bertze bi bikote, Larraide-Pernaute eta Galdona-Roteta finalerdietara ailegatu ziren.

Errekako elite mailako pilota txapelketa

Malerrekako elite senior mailako eskuz binakako IV. txapelketa azken txanpan sartua da. Martxoaren 1ean, zerrendaburuak jokoan sartzeok dira: Donezteben Azpiroz-Zabalo, Elizondo-Urzaikiren kontra; Mikelperezena-Etxegarai, Iraola-Otxotorenaren kontra; Ontsaloz-Azanza, Alegria-Lopezegiren kontra; Bellosoteiza, Lazkoz-Antxoren kontra; Olaetxea-Zapirain, Zufiurre-Gironesen kontra arituko dira. Sunbillan, Altzugarai-Eraso, Ongay-Beteluren kontra; Azagurre-Iureta, Amendariz-Tabaren kontra eta Irigoien-Xabi Arraztoa, Urrutia-Okiñenaren kontra arituko dira. Irabazleek, martxoaren 8an final laurdenetako partidak jokatuko dituzte Donezteben eta final erdiak Sunbillan jokatuko dira martxoaren 15ean. Final nagusia maiatzeko lehen hamabostaldiko larunbat batean jokatuko da, bertze maietako finalekin baera.

PILOTA

Paxaka txapelketaren finala martxoaren 11n jokatu da

Finalerdiak ere Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatu dira hilaren 4an

Aitor AROTZENA

Laxoa elkarteak zazpigarren urtez antolatutako paxaka txapelketaren txapelak Iruritan geldituko dira aurten. Izan ere, martxoaren 4an finalerdiak Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatu dituzten lau hirukoteak herrikoak dira.

Jakina denez, hasierako ligaxkan bederatzita talde aurkeztu ziren: 5 Iruritakoak eta Doneztebe, Oitz, Hondarribia eta Lapurdiko Ipar Izar taldeko bana. Hasierako ligaxka horretan Iruritakoen nagusitasuna nabarmena izan da, borts lehendabiziko postuak beraientzat izan baitira. Urrutia anaiek eta Elizaintzinek partida guztiak irabazi dituzte eta bitan bakarrik ailegatu dira arerioak 6 jokotara. Beraz, 22 puntu pilatu dituzte. Puntu kopuru bera lortu dute Urtaşun, Ballarena eta Etxenikek. Arestian aipatutako hirukote horren kontra galdu egin zuten, baina gainerako partida guztiak irabazi zituzten, kontrarioak sei joku baino guttiagorekin utzi.

Hirugarrenak Alfaro, Etxandi eta Bidegain izan dira, 17 punturekin, sei partida irabazi (bakarrean egin zuten kontrarioek sei joku) eta bi galduta (bietan sei jokuetara ailegatu gabe).

Laugarren postua, Zabaleta, Santxotena eta Riparentzat izan da.



Zazpigarren paxaka txapelketako txapelak Iruritan geldituko dira aurten, finalerdietan arituko diren lau hirukoteak herrikoak baitira.

5 partida irabazi (lautan kontrarioak sei joku baino guttiagorekin utzita) eta 3 galduta. Hauek, gibeleratuta utzia zuten partidaren faltan bosgarren zeuden eta nahitaez sei joku baino guttiagoan utzi behar zuten Oizko hirukotea. Azkenean 9-5 irabazi zuten eta honela, laugarren postua eskuratzeko behar zituzten hiru puntuak lortu zituzten.

Beraz, lau hirukote hauek jokatu dituzte finalerdiak martxoaren 4an. 17:00etan Urrutia anaiek eta Elizaintzin; Zabaleta, Santxotena eta Riparen kontra arituko dira eta ondotik, Urtaşun, Ballarena eta Etxenike; Alfaro, Etxandi eta Bidegainen kontra. Irabazleek finala jo-

katuko dute martxoaren 11n, leku berean.

LAPURDIKO ETA HONDARRIBIAKO HIRUKOTEAK

Hasierako ligaxkako sailkapenarekin segituz, aipatu dugun bezala bosgarren postua Iruritako Etxenike, Etxenike eta Iñarrearentzat izan zen. 13 punturekin, 4 partida irabazi eta 4 galduta ondotik.

Seigarren postua, Lapurdiko Ipar Izar taldeko Mendiboure, Idoate eta Jauregiberrirentzat izan da, 10 punturekin. Lapurtarrek itxura polita eman dute eta hiru partida irabaztea lortu dute.

Zazpigarren postua Doneztebeko Erkizia, Juanena eta Oartzar-

balentzat izan da, 6 punturekin, bi partida irabazita.

Zortzigarren postua Oizko San Miguel, Mingegia eta Mingegiarentzat izan da, partida bakarra irabazita hiru puntu eskuratu baitituzte eta bederatzigarren postua Hondarribiako Festa, Huarte eta Salaberriarentzat izan da puntu bakarrarekin. Hauek partida guztiak galdu arren, batean sei joku egitea lortu zuten.

Dena den, kontuan hartu behar da lehenbiziko partehartzea zute-la gipuzkoarrek. Gainera, normalki partidak Iruritan jokatzeko badira ere, aurten lehen aldiz, Hondarribiako plazan jokatu da paxaka txapelketako jardunaldi bat.

Eskualdeko pilotariren bat izanen da eskuz binakako finalean

ttipi-ttapa

Gure inguruko pilotariren bat ikusiko dugu aurten eskuz binakako finalean eta hiru ere izaten ahal dira. Izan ere, finalerdi batean, Aimar Olaizola goizuetarra eta Zearra, Asier Olaizola goizuetarraren eta Oronoz-Mugainiko Iñaki Otxandorenaren kontra ari dira. Olaizola anaietako bat seguru izanen da azken partidaren. Asierrek irabaziko balu, Iñaki Otxandorenarekin bikote egiten duenez, eskualdeko bi pilotari izanen lirake finalean, eta Aimarrek irabaziko balu bat. Bertze finalerdian, Irujo eta Eulateren kontra aritzekoak dira Oinatz Bengoetxea leitzarra eta Pabxi Ruiz. Bengoetxea VI.a eta Ruiz nagusituko balira, eskualdeko bertze pilotari bat ere izanen da final handian.

Hori guziaz, heldu diren asteetako partidetan erabakiko da. Orain arte, Olaizola I eta Otxandorena dira partida guztiak irabazi dituzten bakarrak. Olaizola II-Zearrak eta Irujo-Eulater hasierako ligaxkako partida bakarra galdu dute eta Bengoetxea VI eta Ruizek, final laurdenetan hirugarren partida jokatu behar izan zuten.

AGENDA

egunez egun

ZINEMA

BEIA

Martxoaren 9an «Princesas» filma eskainiko da Kultur Etxean 19:00etan, Emakumearen Astearren barrenean.

LEITZA

Martxoaren 3-5ean «Oliver Twist» filma euskaraz eskainiko da zinemaz. Martxoaren 10-12an «El jardinerio fiel» filma eskainiko da zinemaz.

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Martxoaren 5ean 5 Milak ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek. Martxoaren 12an Belaun Bizirik ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

SUNHILLA

Martxoaren 3 eta 4an Fustifanatik Xabierera (Bardeak) ibaldia antolatu du Ulibelzak mendi taldeak.

ZUGARRAMUNDI

Martxoaren 12an Bera-Hendaia ibilbidea eginen du Atxuria mendi taldeak.

SOLASALDIAK

LESACA

Martxoaren 11n garapen erediari buruzko zikloaren barnean «Cervantes en los espejos franceses» solasaldia eskainiko du Javier Irazoki idazleak 20:00etan pleno aretoan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Martxoaren 4an «Skalanak» taldearen kontzertua Lur diskotekan 0.30etan. Martxoaren 11n «Sagarroi», «The Solanos» eta Berlingo «Lucha AmadaDj» taldeen emanaldia Lur diskotekan 23:30etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



MUSKUPLUS SAIOA TOKI-ONA KIROLDEGITIK

Edozeinek egiteko moduko kirol ariketak ttipi-ttapan

Duela urte pare bat Ttipi-ttapa Telebistak eskaini zuen «Sasioan» saioaren ildotik, gimnasioan kirol egiteko «Muskuplus» saioak eskainiko dira Berako Toki-Ona kiroldegitik. Saioa aurkeztuko duen Borja Senosiainen erranetan, «edozeinek egin ditzakeen ariketak egiten dira Muskuplus saioan, gimnasioa eta pesak ez baitira bakarrik mutil gihartsuentzat. Denborak eta pisuak norberaren posibilitate eta beharretara egokituta, edozeinek landu dezake gorputza gimnasioan». Hori erakusteko, saio ezberdinetan hastapen fisikoa, hobekuntza fisikoa, kardiobaskularrak, Streching eta kulturismoa era-

kutsiko dira. «Muskuplus» saioek, edozein kirol entrenamenduk bezala, hiru zati izanen dituzte: beroketa, zati nagusia eta lasaitasunera itzulera. Beraz, zalantzarik ez izan, sasioan jartzeko Ttipi-ttapa telebista ikusi eta «Muskuplus» programan parte hartu.

«EZKONTZEKO PREST»

Azkeneko urteetan bezala, udaberria hurbil dugun honetan, «Ezkontzeko prest» izeneko saioa eskaintzen ari gara. Ezkongaiantzat interseko produktuak eskaintzen dituzten komertzioek, egun zoriotsu hori prestatzeko beraien eskaintzaren berri ematen dute.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Otsailaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 45,00 € (=)

Zerri gizena
1,145 € kilo, (+0,013)

Zerramak:
0,450 € Kg/bizirik. (+0,020)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,80 (+0,02)
1.koa 3,58 (+0,03)
2.koa 3,39 (-0,03)
Uruak: €/kg. Kanal
Extra 3,92 (+0,04)
1.koa 3,70 (+0,03)
2.koa 3,47 (-0,02)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
uruxak 220,00 (=)
idixkoak 270,00 (=)

Aretze nabarrak:
uruxak 180,00 (=)
idixkoak 225,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,95/3,01
Zaldi-behorak: 1,57/1,87
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 4,70 /5,60
8-10 kilokoak: 3,70 /4,40

DISKAK



Iluntze berri baten bila

SEXTY SEXERS

GAZTELUPEKO HOTSAK, 2006

Sexty Sexers, rock-rolaren gaztetetasuna eta indarra nabarmentzen duen taldea da. 2001eko hondarrean sortu zen, Berako harrobi emankorrean. Gazte gaztetatik hasi ziren Ameba izenpean. «RocknRoll Samurai» eta «Otsoa izan naiteke» kantuak grabatu eta single bezala kanikaratu zituzten, euren burua ezagutaraziz. Maketa bat argitaratu zuten 2004an eta hainbat bildumatan parte hartu ondoren, lehen disko luzea grabatu berri dute Andoaingo Garate estudioan Martxel eta Kaki Arkarazorekin batera. Otsaileko hiru garren astean argitaratu da «Iluntze berri baten bila» eta bertan punk-rock indartsua rock pitsutsuarekin nahasten da. Kantu propioak eta bideo klip dotorea eskaintzen dute Mikel Strangelove, Electric child, Juzz Suicide, Loverman eta Freezer-ek.

AGENDA
egunez
egun

JAKIN BEHARREKOAK

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako Foru Lege berria

Zenbait aldaketa proposatu ditu Irache Kontsumitzaile Elkarteak

2002. urteko uztailetik, Nafarroako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Foru Lege berriari buruz lanean hasi zenetik, Irache Kontsumitzaile Elkartearen esperientzia gehien duten pertsonak gogor lanean aritu dira horretan, lege-testu berriari Nafarroako kontsumitzaileen eskubideak modu egokian defendatzeko helburuarekin. Helburu hori betetzen ez zutelakoan, zenbait legetasmoren kontra agertu da Irache eta behin eta berriz aritu da elkartearen artikulu berriak sartzea eskatzu.

Iracheren lan horren ondorioz, oinarriko eskubide batzuk gehitu dira, hala nola sufrututako kalteen gaineko kalteordaina. Kontsumitzaile guzietan beraien interes ekonomiko eta sozialak babesteko dituzten



Kontsumitzaileen eskubideen defentsan aritu da Irache.

bertze eskubide batzuk ere garatu dira (Iracheren proposamenen artean daude, adibidez, idatzizko aurrekontu bat eman, erreklamazio-orriak eduki edo fakturak eman beharra. Modu berean, kontsumitzaileen informatzeko eskubidea ere aldatu da.

Hala ere, oraindik

hobetu behar diren zenbait arlo ere badaude. Honela, legetestuan artikulu bat sartu beharko litzateke, Nafarroako legeak arautzen ez dituen kasuetan, Espainiako Lege Orokorra aplikatzeko. Izan ere, lege hau aski aurreratu da eta kontsumitzaile elkartearen lana

eta indarra kontuan hartzen ditu.

Irache Kontsumitzaile Elkarteak, bertze erakunde batzuk bezalaxe, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileek Defentsarako Lege Orokor honen osagarritasuna biltzen duen klausula bat sartzea eskatu du behin eta berriz.

ANTZERKIAK

BERA

Martxoaren 3an Zirika Zirkus taldearen «Zorionak zuri...» haurrentzako antzerkia 17:00etan Kultur Etxean. Antolatzailea: Ricardo Baroja Ikastetxe Guraso Elkarte.

OSPAKIZUNAK

ELIZONDO

Martxoaren 11n Sanxotenen bazkaria izanen da 14:00etan, Emakume Langilearen Eguna ospatzeko.

BERA

Martxoaren 6tik 12ra «Emakumearen Astea» antolatu du Uxua Emakume taldeak. Xehetasunak 9. orrian.

TAILERRAK

LESANA

Martxoaren 6 eta 20an «Jokoak, hitzak eta sormena» haur tailerra 17:30etatik 18:30etara liburutegian.

BERTSOAK

BERA

Martxoaren 1an Nafarroa Oinez Bertso Saria 2000. Bertso afaria Gure Txokoa elkartean.

ERAKUSKETAK

BERA

Martxoaren 14tik 24ra «Birziklatuz pertsonalak sortuz» erakusketa Kultur Etxean, asteleheneetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara.

Martxoaren 13tik 17ra (biak barne) «Andersenek idatzitako ipuinetan oinarritutako erakusketa. Marrazketa Txokoa txiki-zat. Arratsaldean liburutegian.

ALDIZKARIAK



EUSKAL HERRIA

20. zbk

2006ko otsaila-martxo

Gure hegoa aberatsa da. Ebro ibaiak bustitzen dituen lurrik oso emankorrak baitira. Bertan, Ebro eta Toloñoren artean kokatzen da Arabako hegoaldea. Ura eta mendiaren artean eremu preziatua. Gaur Arabako Errioxa izendatu dugu, orain dela mila urte Nafarroa zena. Norik ez ditu inoiz Errioxako upeldegia bisitatu? Lagunen arteko ohiko bidaia bilakatu da azken urteotan. Halere, Euskal Herria aldizkarian ardoen usainetatik ha-

ratago joan nahi izan dute eta Arabako hegoaldeko herriak eta mendiak deskubritu nahian artikulua idatzi dute. bardeetako arroz eremuak eta gure kostaldeko uretako plazan ere aztertzen dira aldizkarian. Bukatzeko, bakea izanen da bidaide. Alde batetik, kanposantuetan aurkitu baitute bidaiatzeko motibo eta bertetik, Baztango bi haranek, Aritzakunek eta Urritzatek, leku galduak direla erakusten baitute.

LANA
302 Eskaintzak

BERA. Ostatu-jateko batean ortzegunetik igandera lan egiteko zerbitzaria behar da (8 orduko kontratua). ☎ 654 385363.

DONEZTEBE. Ibarburu jatekoan zerbitzaria behar da. Ordu-tegi interesgarria. ☎ 626 032050.

BERA. Frantses pioda bat dakien neska bat behar da apiril-ekimurira lan egiteko Larungo benta batean (dendan). ☎ 948 631100 edo 607 566022.

BERA. Ibardingo Benta Miguelen sukaldako laguntzaileria behar da eguerditan lan egiteko egunero. ☎ 948 631394.

SUNBILLA. Kanpinea sukaldaria behar da, 13.00etatik 16.00etara eta 19.30etatik 22.30etara. ☎ 948 450540 edo 618 521032.

Mantenimendua. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lo-rezainak, palistak, gidariak. Udalekxetarako lanpostu libreak. 1.600 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

Administrari laguntzaileriak. Abudo sartzeko unibertitatean, udalekxetan. 1.500 €/hilabetean. Informazioa

TALLERES SANTESTEBAN
☎ 948 450282 • DONEZTEBE**KOTXE IA BERRIEN SALMENTA**
(6-18 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK

EHZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK, ETA QUAD-AK, GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

doan. ☎ 948 199596.

Aireportuak. Bete behar duta: bezeroari arreta, aire kontrolatzaileak, suhiltzaileak. Lanpostu finkoak. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

Elbarri tsikoak. %33a baino gehiago baduzu, lortu lanpostu finkoa udalekxetan. Plaza erreserbatuak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Harreragileak, telefonistak. Lanpostu libreak udalekxetan eta Nafarroako Diputazioan. 1.100 €/hilabetean. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

Hautzaindegia publikoak: Bete behar dute haur zaindari eta hezitzaile lanpostuak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Laborategia. Nafarroako Diputazioan lanpostu libreak; teknikoak, laguntzailerak, sanitarioak, kimikoak. Informazioa doan. ☎ 948 199596. Sukaldariak, sukalde laguntzaileria. Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan.

SAMPI ARAGON ZOANSA

See 100 TD (juleari), See 100 gailua, Audi A1 TD, Audi A1 L&T, Golf TD (juleari), See Toledo TD, See Toledo gailua, See Leon (juleari), Citroen Saxo S, Citroen ZX TD, Citroen Xantia Pointo, Lada Vea (juleari), Saab 900 gailua, Mitsubishi Pajero L, See 23 TD eta 23 TD

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak: Mitsubishi 200 1.6, Vaux 1.6 eta TD, Opel Astra, Ford Vaux 1.6, Opel Zafira, Opel Insignia Sport, Teramo I Sport 1.6, Peugeot Partner HD, Galper 1.6, Mitsubishi 1.6 eta Citroen Saxo 1.1 HD, SUZUKIAK ETA YITARRAK AUKERAN

Asteburuak libre. 1600 €/hilabetea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Gidariak, txoferrak. Abudo sartzeko udalekxetan, Nafarroako Diputazioan. 1800 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

MOTORRA
501 Salerosketak

BMW 325 Compact salgai, 2002 urtekoa, 112.000 km. Pac M2. 192 zald. ☎ 696 946678.

Renault Express autoa salgai. Egoera onean. SS-AG matrikula. ☎ 660 394999.

Honda Dio scooter motoa salgai, 10.000 km. rekin. Ez du golperik. Gurpilak, baterria eta matrikula berria. Saltzeri da ez erabiltzeagatik. 750 euro. ☎ 609 926895.

Yamaha FZ6 Naked motoa salgai, 2005eko modeloa. ☎ 627 001380.

Traktorea Landermarkako autoa salgai, trakzionatua, goldes

**BERAko UDALA****U.U.16.1EKO URBANIZAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONESTEIA**

Berako Udaleko Alkate-Lehendakariak, 2006ko urtarrilaren San, Pilar Aguinagak eta beste lau gehiagok aurkeztutako U.U.16.1eko Urbanizazio Proiektuari, hasiera batez onetsi zuen.

Espedientearen jendeaurrean izanen da hogei egunez, inagarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2006.01.30
ALKATEA
Helena Santesteban Guelbenzu

ets ariarekin. ☎ 948 634133.

Peugeot 206 2.0 16 v autoa salgai. 2000. urtekoa. DA-CC-CE-EE. Speedline lantak 16 pulgadakoak, Eiboch muelle homologatuak. Extrak. ☎ 699 887740.

Patrol GR luzea salgai, 1998koa, 117.000 km, egoera onean. ☎ 616 243530.

Audi A3 130 cv autoa salgai. 37.000 km. Beltza metalizatua, extra ugari, egoera oso onean. ☎ 646 986448.

Toyota Yaris 1.3 autoa salgai, 2001eko. ☎ 669993950 (Irina).

Opel Corsa autoa salgai, NA-AK. Egoera onean. 2.000 euro. ☎ 687 736973.

Galper 4x4 laburra salgai, 2.5TD Intercollet, 2000. urtekoa. 46.000 km. Aitzineko

defentsa kromatua, erre-molke-enganbea. 10.200 euro. ☎ 617 264039.

ANIMALIAK
602 Salerosketak

Hamabost ardi umatu euren umeekin salgai Arantzan. ☎ 647 058371.

DENETARIK
702 Salerosketak

Su-egurra salgai, bagoa. ☎ 948 635029 (Ilunabarretan).

Logela bat saltzeko, bi ohe-somierekin, gaueko mahai itxia, 2 armairu. Baita sofa-ohet bat ere. ☎ 948 580173.

Berogailua egurrarekin eta furtuzko erradiatorea salgai. ☎ 948 393054.

Egoera onean dauden egongelako altzariak salgai. ☎ 948 635141 edo 687 871456.

Janaria bero mantentzeko termo-salgai, oso gubi erabilia, jateko batentzat edo jangela baterako egokia. Aukera ona. ☎ 610 257467 edo 948 635234.

Garbigailua salgai. Egoera onean. ☎ 687 950373.

Ilar gorria saltzeko. ☎ 948 634011.

DENETARIK
703 Bertzelakoak

Elkar izan boluntario taldea. Beharren bat baduzu, parte hartu nahi baduzu, deitu 012 telefonora eta haren manean jarriko gara.

ADOS

ADOS INMOBILIARIA
Bortzirietan
kolaboratzailea
behar da.
☎ 948 451 841

Hiritarraren
012
telefonoa

Udala zure zerbitzuan

- Kulturako eta kirolako agenda • Udal informazioa
- Kultur eta astialdi jarduerak • Ziurtagiriak eta ordainagiriak
- Zerbitzu Orokorrak • Gizarte zerbitzuko laguntzak

Argazki soila: 4 E. Bilkotza: 8 E. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,29€ ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 E ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.info



Zorionak etxeko printzessari zure urtebetetzetan. Muxu haundi bat etxekoan partetik. Pasatsek ta txanpasa espero ditugu.



Ematzuko "Zorion" zorionak bere 20. urtebetetzetan. Tiklatak hasi zinen parrandari! Horrela segi, beti bezain ala... Zure legonak.



NERKA BANTERAN MUTU-BERRIA lotosarrak 4 urte bete ditu otsailaren 18an. Zorionak eta muxu bat Errandoko familia eta bereak izaten partetik.



Iurtako NARDA ELIZANTZIN ALYUANTZEN 2 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



ENAITZ TELLETXEA SEIN igantzarrek 6 urte bete ditu otsailaren 17an. Auniz urtez aita, ama, alabak eta Anaren partetik. Aupa pibitarri!



JOSE ANDEL ALZUJOREN «KOTTOH» 40 urte beteiko zuen martxoaren 3an. Gazte gaztea, ia bi egun beresiak daukazu. Beldu gure arloan zauden. Etxekoak.



LONAZ AZUNBERRI GAZTE-LIMENEN zorion bere bero bat bere amona eta aitaren partetik urtebetetze egunon. Muxu handi bat. Ongi ospatu eguna.



AITOR ZUBIETA MORATINOS le-sakamak urtea beteiko du martxoaren 8an. Zorionak eta muxu auniz Usako familieren partetik.



Lezakako AITOR ZUBIETA MORATINOS eta bere alabak RUFINO ZUBIETA TAPIAK urteak beteiko dituzte martxoaren 8an eta 2an. Auniz urtez eta sozi bek hainen multzo onak izaten.



JON BIGARRI TELLETXEA igantzarrek 3 urte beteiko ditu martxoaren 7an. Auniz urtez Xabier, aita eta amaren partetik. Muxu handi bat.



JONE OLATZEA SANZ berotarrak 12 urte bete ditu otsailaren 25ean. Zorionak aita-ama, alabak, amak, txabak, lehenguz eta Krispinen partetik.



ALAITZ IRIARTE GOMEZ berotarrak 1 urte zuen otsailaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat familieren partetik.



JAVIER SEIN GOMEZ ibundarrak otsailaren 20ean 0 urte bete ditu. Auniz urtez familieren partetik.



EDURNE ZUBIETA Surbilako ttipi-kamara piko bat gehiago zaharriko zaigu martxoaren 18an. Auniz lehen partetik.



Zorionak JOANA eta MAIENA! Aita, ama eta Thomas.



MAIENA eta MAELIEK 3 urte beteiko dituzte martxoaren 3an. Zorionak familieren partetik!




Elizondoko GARAZIK 3 urte beteiko ditu martxoaren 15an. Zorionak eta hiru muxu haundi Elizondoko familia eta amako eta aitaren partetik.

Euro 1 irrifar 1 SAHARAren ALDEKO Larrialdi Laguntza



Badaude dirua biltzeko eitzetxoak Baztan, Malerreka eta Bortzirietako eskoletan eta ostatuetan

NORBATT ZORIONTZEN, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,29 EUROKO 13 SEILU TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa

Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Urtebetetzeko argazkiak Internet-en ere

www.ttipi.info

luzclinic

KLINIKA ANBULATARIOA BEGIETAKO MIKROKIRURGIAN OFTALMOLOGIA ZENTRUA

www.luzclinic.com

Oftalmologiaren beste ikuspegi bat



Frantsiako Ogasun Agintariek kreditatua

- 1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
- 1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
- 1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
- 2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia inplante egokiorrak erabiliz
- 2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
- 2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
- 2006 Maiko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Eskiroz, 31 • 8 solairuartea • 31007 IRUÑA • Tfnoa: 948 199 999

Juan de la Cruz, 5 • TEKNIA Zentrua • 20300 IRUN • Tfnoa: 943 660 150

Ferre Dal Baña, 6 • ZA Layatz II • 64500 DONIBANE LOHIZUNE • Tfnoa: (0033) 559 51 84 0 0(FR) - 902 209 299 (SP)

IRUÑA

DONIBANE LOHIZUNE

IRUN

martxoak 19 **Lur** aretoan
18.00etan

bideoak desfilea
erakusketa
sorpresak
ikuskizuna

on egin
herbodietika
azken muga
arropa denda
ayla argazkigintza
mar cruz
lentzeria
estibaliz
centro de estética
amalaileapaindegia
arropa denda
ipingui
calzados virgilio

Antolatzaileak:

Estibaliz
CENTRO DE ESTÉTICA

IPINGUI
arropa denda

AMALA
argazkigintza

AYLA
argazkigintza fotografia

Laguntzaileak:

Lur

graficant
COMUNIDAD

echea
industria gráfica

ANTOLATZAILEAK:

ESTIBALIZ
CENTRO DE ESTÉTICA

IPINGUI
arropa denda

AMALA
argazkigintza

AYLA
argazkigintza fotografia

Laguntzaileak:

Lur

graficant
COMUNIDAD

echea
industria gráfica

http://www.lur.com

Gurasoentzako ikastaro laburrak

Gozatu seme-alabekin jostetan, kantuan... !

DATAK: martxoak 20, 22, 27 eta 29
ORDUTEGIA: 17:00-19:00
TOKIA: Berako haurtzaindegia
IZEN EMATEA: 948 63 41 25
EPEA: martxoak 16

OHARRA:

- ☞ Haurrak eramaten ahal dira, ikastaroak irauten duen bitartean zaintzaileak izanen bait dira.
- ☞ Gurasoetz gain, aitatxi-amatxiak, zaintzaileak, hezitzaileak...joaten ahal dira.
- ☞ Matrikula: 10€

Antolatzailea:

**BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA**
Herriko Plaza 7 • ARANTZA
Telefonoa: 948 634 125
Faxa: 948 634 132
bortzirietako@euskara.net

**EUSKARA
BAI GOXOA**

martxoak **04** larunbata

12€ 00:30

SKALARTIA



martxoak **11** larunbata

10€ 23:30

SAGARROI + the SOLANOS

Lucha 
Ahadadj
(Berlin)

martxoak **18** larunbata

00:30



TXUTXIN IBANEZ BAND

+ JALISKO

martxoak **25** larunbata

8€ 01:00
KOHZUMIZIOA

DISKOTEKA